

# Zertan den Euskadi

2016 | ESPAINIAKO UNITATEA



01 Euskadiko BPG % 2,4 haziko da 2016an eta % 2,5 2017an, biurtekoan 37 mila lanpostutik gora sortuz

02 Barne eskariak bultzatzen du oraindik ere hazkundera, kanpo sektoreak aldiz modu jarraian haztea du erronka

03 Barne eskariaren bultzadak ez du atzerapausorik eraginen euskal enpresen nazioartekotze prozesuan

04 Hezkuntza alorrean ahaleginak handitzea beharrezkoa da Europako eskualdeen pareko giza kapitala erdiesteko

## Aurkibidea

1	Editoriala	3
2	Europako ekonomiak gorantz jarraitzen du, hazkunde global txikiko testuinguruan	5
3	Euskadiko ekonomiaren perspektibak	9
	1. errekoadroa. Euskadiko egoera ekonomikoaren azterketa, jarduera ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren bidez. 2016ko bigarren hiruhilekoa	28
	2. errekoadroa. Eragiten al dio barne-eskariaren bilakaerak esportazioen hazkundeari?	30
4	Espainiako eta espainiar eskualdeetako biztanleen hezkuntza-maila: 1960-2011. Euskadiren kasua	36
5	Taulak	44

**Itxiera data: 2016ko uztailak 8**

# 1 Editoriala

**Euskadiko BPG % 3,1 hazi zen 2015ean: batez besteko historikoa baino puntu eta erdi gehiago, eta BBVA Research-ek aurreko *Zertan den Euskadin* aurreikusitakoa baino lau hamarren gehiago.** Hazkunde horren atzean, barne-eskariaren pixkanakako indartze bat dago eta, eskaintzaren ikuspuntutik, zerbitzu pribatuen eta industriaren hobekuntza.

Datozen urteei begira, hazkundeak jarraitu egingo du Euskadin. **Hala, 2016an BPG % 2,4 haztea espero da, eta % 2,5, berriz, 2017an. Dinamismo horri esker, 37 mila enplegu baino gehiago sortu ahal izango ditu erkidegoak bi urtean, eta % 9,6 ingururaino jaitziko da langabezia-tasa biurtekoaren amaieran.** Aldeko zenbait haizeren eragin positiboak jarraitu egiten du: azken urteetan baino dezente merkeago egongo da petrolioia; murriztu egin da mundu-mailan berriro atzeraldia gertatzeko probabilitatea, Txinako jarduerari buruzko igurikimenak hobetu egin direlako; eta, bestalde, sumatzen da AEBko Erreserba Federalak ez dituela interes-tasak bere ekonomiaren hazkunde arriskuan jartzeko moduan handituko.

**Argitalpen hau ixteko unean eskuragarri dauden adierazleak kontuan hartuta, eskualdeko ekonomia % 0,5eko erritmoan (h/h) ariko litzateke hazten 2016ko bigarren hiruhilekoan.** Alegia, aurreko hiruhilekoan eta BBVA Researchen agertokiarekin bateragarri litzatekena baino hamarren bat gutxiago. Beraz, bilakaera hori baieztatuz gero, 2016rako aurreikuspenari beheranzko joera arina ezarriko lioke. Hazkudearen euskarri nagusia barne-eskaria da oraindik ere, familien kontsumoaren hazkudean eta hazten jarraituko duen gastu publikoan oinarrituta, nahiz eta ez den 2015eko erritmoan handituko. Horrez gain, eta argitalpen honetako 2. errekoadroan erakusten duenez, ez dirudi barne-eskaria indartzeak beste herrialdeetara egiten diren salmenten gainean halako ordezkapen-efekturik eragiten ari denik. Dena den, ondasunen esportazioek hazkunde sendoa nabarmendu gabe jarraitzen dute. Azkenik, inbertsioa handitu egin da, ziurgabetasun handiak baldintzatuta bada ere; horixe erakusten dute jarduera ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren adierazleak (ikus 1. errekoadro).

**Hala ere, indarra galdu dute Euskadin hazkudearen sustatzaile izan diren zenbait euskarrik:** agertoki globalaren hobekuntza ahula eta hauskorra da; eta Europako Banku Zentralaren (EBZ) politika monetarioak hazkudeari egindako ekarpena agortzen hasia izan daiteke. Gainera, Espainiako administrazio publikoek 2015ean oro har abiarazitako neurri fiskal bereziak (BPGren % 1 ingurukoak) ez dira 2016an errepikatuko.

**Horrez gain, sumatzen ziren zenbait arrisku gertatu egin dira.** Kanpoan, Erresuma Batuko erreferendumaren emaitza nabarmendu da (iaz Euskadiko ondasunen esportazioetan laugarren lekua betetzen zuen helmugako herrialdeen artean, eta % 6,5 zegokion guztira): erreferendum bidez, britainiar herritarrek Europar Batasuna uztea erabaki dute. **Erresuma Batuek eta EBk batasunetik irteteko baldintzak negoziatu behar badituzte ere<sup>1</sup>, berehalako eragina izan du liberaren kotizazioan,** eta, ziurgabetasun handiagoko ingurune bati lotuta eskaria ere murriztu daitekeela kontuan hartuta, britainiarrek Euskadiko ondasun gutxiago erostea gerta daiteke. Hori guztia, aintzat hartu gabe kapital merkatuetako aldakortasunak munduko ekonomian eta, bereziki, Europakoan izan ditzaketen eraginak.

**Espanian, administrazio publikoen kontuetan helmuga batzuetara iristeko konpromisoa hartu bazen ere, kontuen desoreka adierazitakoa baino handiagoa izan zen 2015 amaieran.** Defizita murrizteko abiadura eta moduarekiko sinesgarritasuna galtzea ekar dezake horrek. Doikuntza gehigarri batzuk egiteko konpromisoa hartu dute bai estatuak eta bai autonomia-erkidegoek; ibilbide berri baten baitan, 2017ra atzeratzen da BPGren % 3tik beherako defizita lortzea. Agertoki horretan ere, nekez beteko dute planteatutako helburua oro har autonomia-erkidegoek eta, bereziki, horietako zenbaitek. Euskal Autonomia

1: EBren Tratatuko 50. artikulua, borondatez herrialde batek alde bakarretik EB uzteko mekanismoak aurreikusten dituenak, hauxe dio: «*EB uzteko eskaria egiten duen herrialdean tratatuak aplikatzeari utziko zaio, erabakia indarrean sartzen den unean, edota, gehienez ere, irteteko jakinarazpena egin eta bi urtera*». Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, ikusi BOE, hemen: <http://www.boe.es/doue/2010/083/Z00013-00046.pdf>

Erkidegoaren kasuan, gobernuak ez luke arazorik izan behar urte honetan berriro bere helburua lortzeko, hots, BPGren % 0,7ko defizita, jada iragarri diren neurrien arabera.

**Egonkortze fiskalaren prozesuak jarraitzea garrantzitsua da oso, defizit-helburua ez betetzeak kostuak baitakartza.** Lehenengo eta behin, aldakortasuna dakarkio ekonomiaren hazkundeari, inolako beharrik gabe (2015 eta 2016 artean bultzada fiskalean dagoen aldeagatik). Bigarrenik, iaz hartutako neurri bereziak nolabait ere konpentsatu egin beharko dira etorkizunean. Eta ziurgabetasuna sortzen du horrek datozen urteetan doikuntzak hartuko duen bidez. Azkenik, sinesgarritasuna azkar galtzen den aktiboa da. Oraingoan, mugatuak izan dira desbideratzeak bonu subiranoaren finantzaketa-kostuan eragin ondorioak, neurri handi batean, EBZren aktibo erosketagatik. Hala ere, ingurune horrek ez du betiko iraungo eta, Espainia bezain zorpetua dagoen ekonomia batean, are finantza-merkatuen egungo egongaitzasun giroan, funtsezkoa izango da finantzaketa-kostuei eustea, susperraldiak jarraituko bada.

**Azkenik, ziurgabetasuna dago oraindik Espainian datozen urteetan ezarriko den ekonomia-politikaren inguruan.** Araubideari, zerga-politikari, gastu publikoaren aurreikuspeni eta gisako faktoreei buruzko ziurtasuna ezinbestekoa da familia eta enpresentzat, euren gastu erabakiak hartu ahal izateko. Egia da jarduerak ez duela okerrera egin ziurgabetasun horren ondorioz modu esanguratsu batean, baina horrek ez du esan nahi enpleguan eta inbertsioan eragin negatiboa izaten ari ez denik. BBVA Research-en arabera, urtariletik ekonomia-politikaren inguruko ziurgabetasunak okerrera egin izan ez balu, Espainiako ekonomiaren BPG 0,3 p.p. gehiago haziko zatekeen 2016an, eta 0,6 p.p. gehiago 2017an.

**Epe luzeagora, hainbat erronka izango ditu Euskadik aurrez aurre, eta garrantzitsua da erronka horietatik indartuta irtetea.** Besteak beste, prestakuntza hobetzea (ikusi 4. atala). Bestalde, euskal ekonomiak bere jardueraren zati hazkorra bideratu behar du kanpo eskarira, bai berezko dituen sektore industrial tradizionalenetan, ekipo ondasun eta semimanufakturetan, bai eta bestelako ondasun eta zerbitzuetan ere. Nazioartekotze prozesu hori azkartzeko premiazkoa da euskal enpresen tamaina handitzea, produktibitatea eta, ondorioz, atzerrian merkatu kuota handituko bada.

Horrez gain, **beharrezkoa da teknologia berriak lehenbailehen barneratzea**, iraultza digitalarekin lotuta dauden bereziki, eskualdearen lehiakortasuna hobetze aldera. Erakunde publikoetatik nahiz enpresa eta etxeetatik egin beharreko lana da hori. Horrela soilik gainditu ahal izango da gaiotan Europako eskualde aurreratuenekin dagoen alde negatiboa.

## 2 Europako ekonomiak hobetzen jarraitzen du, hazkunde global txikiko testuinguruan<sup>2</sup>

2016ko lehen hiruhilekoko datuek egiaztatu egin dute **munduko ekonomiaren egonkortzea; hazkunde tasak txikiak dira oraindik, baina 2015eko amaierakoan apur bat ginetik daude**. Munduko BPG % 0,6 inguru ari da hazten (% 2,6 urteko tasan), BBVA-GAIN ereduaren arabera, nabarmen 2010etik 2015era bitartean erregistratutako batezbestekoaren azpitik (ikusi 2.1 grafikoa). Hala ere, erritmo hori azkartu egin daiteke bigarren hiruhilekoan, ekoizpen, merkataritza eta enpresa-konfiantzaren ataletan eskuragarri ditugun adierazleek zehaztu narriadura txikiagoa finkatzen bada, edota Estatu Batuetan eta Japonian hazkunde ekonomikoa modu nabarmenean hobetzen bada.

2015eko abendutik 2016ko otsailera bitartean behatutako finantza-aldakortasun handia jarduera globala bera moteltzearen ondorio izan zen nagusiki, eta, bide hortatik indarrez jarraituz gero, berau nabarmenduko zuela zirudien. Orduz geroztik, **bai finantza-tentsioak, bai estres-agertoki globala sortzeko probabilitatea murriztu egin dira**.

Dena den, **agertoki ekonomiko globalaren hobekuntza ahula da azken hiruhileko honetan ere**, eta aldagai ezberdinen menpe dago: Txinako ekonomiaren bilakaera, Erresuma Batua EBtik irteteko konponbide adostua eta Europako beste ezegonkortasun iturriak (geopolitika, Greziako zorraren ordainketa) edo AEBn gerta daitekeen moteltzea bera. Nolanahi den, ezin daiteke ziurtatu urte hasierakoaren antzeko beste finantza-aldakortasun aldirik gertatuko ez denik, ziurgabetasuna handia baita, nola gorabidean diren herrialdeen blokeak moteltzea saihesteko duen gaitasunaz, hala ekonomia garatuetako banku zentralek hazkundera berriro bultzatzeko duten ahalmenaz.


### Hazkunderaren bizkortze arina eurogunean, izaera politikodun epe laburreko arriskuekin

2015eko bigarren seihilekoan gertatutako hazkunde neurritsuaren ondoren (BPGren % 0,3ko hiruhilekoko tasak), **euroguneko ekonomiak aurrerapen-erritmoa % 0,6ra arte azkartu zuen 2016ko lehen hiruhilekoan**. Frantziak eta Alemaniak uste baino emaitza hobekak izanik (% 0,5 - % 0,6 inguruko hazkunde-tasekin), eta Espainiak erakutsitako dinamismoari esker (% 0,8ko hazkundera ondoz ondoko hiru hiruhilekotan), eremu osoaren hobekuntzari eutsi zaio urte honen hasieran.

**Kontsumo pribatua** krisiaren aurreko mailara iritsi da berriro, eta **sendotasun hori funtsezkoa da** eurogunearen hazkunde-ereduan; hala ere, azken aldian eragileen konfiantzak izandako murrizketak eta, periferiako zenbait herrialdeetako familiek duten zorpetze-mailak, kontsumo pribatuak jarduera agregatuari egin diezaioken ekarpen gehigarriko tarte mugatu dute. Horrez gain, **kapitalean egindako inbertsioaren suspertze txikiaren eta kanpo-merkataritzaren ahultasunaren ondorioz**, 2016 eta 2017. urteetarako hazkunde-aurreikuspenak beherantz berrikusi behar izan dira. Hala, euroguneko BPG % 1,6 handi daiteke aurten, eta % 1,9 2017an (duela hiru hilabete aurreikusitakoa baino 0,2 p.p. eta 0,1 p.p. gutxiago, hurrenez hurren) (ikusi 2.2 grafikoa).


2: Zehaztasun gehiago nahi izanez gero, ikusi 2016ko bigarren hiruhilekoari buruzko BBVA Research-en *Situación Global* eta *Situación Europa* aldizkariak, hemen: <https://www.bbvaerearch.com/>

2.1 grafikoa  
Munduko BPG (% , h/h). 2016ko 1H eta 2H-ko aurreikuspenak, BBVA-GAIN-en oinarrituta



Iturria: BBVA Research

2.2 grafikoa  
Eurogunea: BPGren hazkundera (%)



Iturria: BBVA Research eta Haver

Dena den, **agertoki horrek beheranzko joera hartzeko arrisku handia du oraindik**, arrazoi politiko (Erresuma Batuko erreferenduma, Greziaren erreskatearen lehenengo berrikuspena eta euroguneko hainbat herrialdek bizi duten ziurgabetasun politikoa) eta geopolitikoengatik, funtsean.

## Espainiak susperraldiari eutsi dio, ziurgabetasuna gorabehera<sup>3</sup>

**2016ko lehenengo hilabeteetan, Espainiako ekonomiak 2013aren erdialdean abiarazitako susperraldia finkatu zuen.** Egoera ekonomikoan barneko nahiz kanpoko ziurgabetasuna gorabehera<sup>4</sup>, azken hilabeteetan jardueraren hedapen-erritmoa egonkortu egin da, 2015ean behatutako kopuruen inguruan; eta, beraz, hazkundearen joerazko mailaren gaineratik. Hazkundera bultzatzen duten faktoreen artean, kanpoko faktoreei dagokienez, **petrolioaren prezio baxuak, Europako eskariaren pixkanakako hobekuntza eta EBZren moneta politika** nabarmentzen dira.

**Barne-merkatuari dagokionez, lan-merkatuaren eta enpresa eta familien finantza-baldintzen mailaz mailako hobekuntzak, barne-desoreken zuzenketarekin batera,** kontsumorako eta inbertsiorako erabakiak bultzatzen jarraitzen dute. Bestalde, **oraindik apur bat hedakorra den politika fiskala neutral bihurtuko da 2016-2017 biurtekoak aurrera egin ahala;** horrek hazkundera bultzatuko du epe laburrean, aurrekontu-helburuak ez betetzeko arriskuak handitzearekin batera.

Laburbilduz, Espainiako ekonomiaren oinarriek hurrengo biurtekoan suspertzen jarraituko duela bermatzen dute. **BPGk tasa txukunean handitzen jarraituko du,** nahiz eta berau hurrengo hiruhilekoetan moteltzearekin bateragarria den, ziurgabetasun giroa eta zenbait faktoreen bultzada apalagoa kontuan hartzen baditugu –petrolioaren prezioak edo zerga- eta moneta-politikak, kasu–.


3: Espainiako ekonomiari buruzko zehaztasun gehiagorako, ikusi: <https://www.bbvaesearch.com/wp-content/uploads/2016/05/Situacion-Espanna-2T16.pdf>  
4: Barnean, politika ekonomikoarekin lotutakoa nabarmentzen da, eta, kanpoan, finantza-aldakortasuna, ziklo ekonomiko globalaren ahultasuna eta tentsio geopolitikoak.

**Aurrera begira, agertoki makroekonomikora gehitutako elementuek** hurrengo bi urteetan Espainiako ekonomiak **hazten jarraituko duela auresateko aukera ematen digute**. 2016ko bigarren seihilekoari dagokionez, txosten hau ixteko unean dugun informazioak adierazten du Espainiako ekonomia moteldu egingo dela, barne eskaria moteltzen den heinean. **Bai 2016an nahiz 2017an jarduera % 2,7 handituko da, eta erritmo hori nahikoa da epealdi amaieran milioi bat lanpostu inguru irabazteko, langabezia tasa % 17,5 ingurura gutxituz.**

**Jardueraren hedapena barne nahiz kanpoko faktoreetan oinarrituko da.** Ekonomia globalak % 3ko erritmoaren apur bat gainerik hazten jarraituko du eta, petrolioaren prezioaren beherakadarekin batera, Espainiako esportazioek gora egitea eragingo du, nahiz eta gorabidean diren herrialdeetako dibisekiko kanbio-tasa handitu. Halaber, politika monetarioaren izaera hedakorrek eskaria handitzea ekarriko du. Barneko egoerari dagokionez, ekonomiaren oinarriek suspertzen jarraituko dutenez, desoreken zuzenketa aurrerapenak egingo direnez eta zerga-politika neurritsu baina hedakorra izango denez, barne-eskariak gora egingo du (ikus 2.1. koadroa). Kontsumo pribatuaren moteltzearekin batera, inportazioen hazkunde txikiagoa gertatuko da baita ere eta, ondorioz ziurrenik, **kanpo-eskari garbiak ekarpen positibo arina egingo dio hazkunderari** urte bukaerarako.


Dena den, **Espainiako politika ekonomikoaren inguruko ziurgabetasuna handia da oraindik**, nahiz eta jardueraren eta enpleguaren joera positiboak eusten zaien. BBVA Research-en kalkuluen arabera, orain arteko ziurgabetasunak BPGren hazkundera 0,3 p.p. murrizten du 2016an eta 0,5 p.p. 2017an. Ziurgabetasun-egoera hori azkar et egoki desagertzen ez bada, eragin handia izango luke enpresen eta familien erabaki ekonomikoetan<sup>5</sup>.

2.3 grafikoa  
**Espainia: BPGren hiruhilekoko hazkunderari egindako ekarpenak (%)**



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

2.4 grafikoa  
**Espainia: BPGren hazkundera eta MICA-BBVA ereduaren aurreikuspenak (% h/h)**



(e): aurreikuspen edo estimazioa.  
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

5: Ikusi 2016ko lehen hiruhilekoari dagokion *Situación España* aldizkariko 1. errekoadroa: [La incertidumbre sobre la política económica en España: medición e impacto](https://goo.gl/x6goYM). Hemen eskuragarri: <https://goo.gl/x6goYM>

2.1.koadroa

**Espainia: aurreikuspen makroekonomikoak**

(u/u %-tan, kontraktorik adierazi ezean)	1H15	2H15	3H15	4H15	1H16(e)	2015	2016 (a)	2017 (a)
Gastua Azken Kontsumo Nazionalen	2,3	2,8	3,4	3,5	3,0	3,0	2,4	2,2
G.A.K. Pribatuan	2,6	2,9	3,6	3,5	3,4	3,1	2,6	2,4
G.A.K. HH.AA.	1,5	2,5	3,0	3,7	2,0	2,7	1,6	1,8
Kapital Finkoaren Eraketa Gordina	6,1	6,3	6,7	6,4	5,9	6,4	4,1	4,5
Ekipoa eta Makineria	8,3	10,1	11,2	10,9	9,7	10,2	5,5	4,7
Eraikuntza	6,2	5,2	5,2	4,6	4,2	5,3	3,1	4,1
Etxebizitza	2,9	2,6	2,1	2,2	2,9	2,4	2,8	4,4
Beste eraikin eta eraikuntza batzuk	8,8	7,3	7,6	6,4	5,1	7,5	3,3	3,9
<b>Eskari nazionala (*)</b>	<b>3,1</b>	<b>3,4</b>	<b>4,1</b>	<b>4,1</b>	<b>3,4</b>	<b>3,7</b>	<b>2,6</b>	<b>2,6</b>
Esportazioak	5,8	6,0	4,5	5,3	4,8	5,4	4,4	5,6
Inportazioak	7,6	7,4	7,2	7,7	5,3	7,5	4,4	6,0
<b>Kanpo-saldoa (*)</b>	<b>-0,4</b>	<b>-0,2</b>	<b>-0,7</b>	<b>-0,6</b>	<b>0,0</b>	<b>-0,5</b>	<b>0,1</b>	<b>0,0</b>
<b>BPG errealia mp</b>	<b>2,7</b>	<b>3,2</b>	<b>3,4</b>	<b>3,5</b>	<b>3,4</b>	<b>3,2</b>	<b>2,7</b>	<b>2,7</b>
<b>BPG nominala mp</b>	<b>3,2</b>	<b>3,7</b>	<b>4,1</b>	<b>4,3</b>	<b>3,8</b>	<b>3,8</b>	<b>3,6</b>	<b>4,9</b>
<b>Pro-memoria</b>								
Enplegua guztira (BAI/EPA)	3,0	3,0	3,1	3,0	3,3	3,0	2,8	2,5
Langabezia-tasa (bizt. akt. %)	23,8	22,4	21,2	20,9	21,0	22,1	19,8	18,5
Enplegua guztira (l.o.b.)	2,9	2,9	3,1	3,0	2,9	3,0	2,4	2,2

(\*) Hazkundeari egindako ekarpenak.

(e): estimazioa; (a): aurreikuspena.

Iturria: BBVA Research, INEn eta Espainiako Bankuan oinarrituta



### 3 Euskadiko ekonomiaren perspektibak

**Euskadiko ekonomia % 3,1 hazi zen 2015ean. Batez besteko historikoa baino puntu eta erdi (puntu portzentualak, p.p.) gehiago** (% 1,6 1981etik 2014ra bitartean), eta BBVA Research-ek aurreikusitakoa baino lau hamarren gehiago. Kontsumoaren eta inbertsioen indarrak azaltzen dute dinamikotasun hori. Enplegua % 2,5 handituta, lanaren batez besteko produktibitatea sei hamarren handitu zen.

**Sektoreen ikuspegitik, jarduera-adar esanguratsu guztiek egin diote ekarpen positiboa euskal ekonomiaren hazkundeari 2015. urtean.** Nabarmetzen direnen artean daude, batetik, merkataritza, ostalaritza eta garraioa eta, bestetik, gainerako zerbitzu pribatuak (0,8 p.p.-ko ekarpena izan du talde horietako bakoitzak). Bestalde, manufaktura industriaren ekarpen esanguratsua ere nabarmendu behar da (+0,8 p.p.), zenbait urtetako atzeraldi edo geldotzearen ostean. Gizarte-zerbitzuen eta eraikuntzak ere ekarpen positiboa izan zuten (0,3na p.p.-ko ekarpenak), zerga-politika hedakorragoa lagun. Lehen sektoreak eta finantza eta aseguru jarduerak soilik egin zuten behera eskualdean, nahiz eta beherakada horiek ez duten eragin esanguratsurik osotasunean (ikus 3.1 grafikoa).

Txosten hau ixteko unean ezagutzen dugun informazioaren arabera, **eskualdeko ekonomia % 0,5eko erritmoan (h/h) haziko litzateke 2016ko bigarren hiruhilekoan**, aurreko hiruhilekoan behatutakoaren eta BBVA Researchen aurreikuspenekin bateragarri den agertokiaren hamarren bat azpitik. Beraz, hazkunde maila hori baieztatuz gero, egun 2016rako ditugun aurreikuspenengan beheranzko joera eragingo luke (ikus 3.2 grafikoa).

**Aurrera begira, eutsi egin zaie jardueraren jokabide egokia sustatu duten euskarri batzuei.** Kanpoan, atzeraldi global batean sartzeko probabilitatea murriztu egin da, eta lehengaien prezioak lehengoetara itzultzen ari dira. Gorabidean diren ekonomien perspektibak hobetu ditu horrek guztiak. Halaber, petrolioaren prezioa duela hiru hilabete espero zena baino gutxiago erori bada ere, Brent upelaren kotizazioak azken urtetako batez besteko mailatik oso behera jarraitzen du. Faktore horiek guztiak, beraz, lagungarri dira ondasun eta zerbitzuen esportazioek hobera egin dezaten.

**Horrez gain, sumatzen ziren zenbait arrisku gertatu egin dira, iragarritakoa baino zerga-politika hedakorrago batekin. Defizitat helburua berriro ez betetzera eraman ditu horrek Espainiako administrazio publikoak** eta, gainera, defizita murrizteko erritmo eta moduaren inguruan sinesgarritasuna gutxitzea dakar. Europako agintariekin eta autonomia-erkidegoekin defizita murrizteko adostutako ibilbide berriari ekiteko, egonkortze fiskalaren prozesua apur bat luzatzea ekarriko du. Euskal Autonomia Erkidegoak bete zuen bere helburua iazko urtean eta, orain, onartutako neurriek aski izan behar lukete 2016an eskualdeko BPGren % 0,7ko helburura iristeko, gastua zerga-bilketaren bilakaerara egokitzeko dinamikari eutsita, betiere<sup>6</sup>.


**Gainera, aldeko ziren zenbait haize indarra galtzen hasi dira.** 2015ean, BPGren 1 p.p. inguruko neurri bereziak hartu zituzten administrazio publikoek. Bultzada hori ez da indar berberaz errepikatzen ari 2016an, eta gastuaren moteltze horren eraginak ere ez dira homogeenak lurralde osoan. Euskadiren kasuan, zehazki, inbertsio publikoa murrizten ari da, bi urtez BPGren % 1,7 ingurukoa izan ondoren (ia puntu bat batez bestekoaren gainetik). Horrez gain, **ekonomia-politikaren etorkizunari buruzko ziurgabetasunak altutik jarraituko du**, Espainian hauteskundeak errepikatu ostean autonomia-erkidegokoak baitatuz udazkenean.

6: Lehen lauhilekoaren itxieran, zerga-bilketa urte osorako aurrekontuetan zehaztutakoa baino erritmo motelagoan hazi zen urte artean; horrek zuhurtziaz jokatze deia egitera bultzatu ditu bai Eusko Jaurlaritza eta bai Foru Aldundiak.

<http://www.eitb.eus/es/noticias/economia/detalle/4085164/el-gobierno-vasco-pide-prudencia-recaudacion-fiscal/>


Hortaz, probabilitate gehien duen agertokian, jarduera ekonomikoaren inertziak eta goian adierazitako euskarri-faktoreek % 2,4ko hazkundea justifikatzen dute 2016an, eta % 2,5ekoa 2017an. Kopuruok batez besteko historikoaren ia puntu bat gaintik haztea esan nahi dute eta biurtekoan 37 mila enplegu gehigarri sortzeko aukera dakarte. Hala eta guztiz ere, 2017. urtearen amaieran lanean arituko diren biztanleen zenbatekoa 2008ko lehen hiruhilekoan lanean ari zinenena baino % 8 txikiagoa izango da oraindik.

3.1 grafikoa  
Euskadi: BPGren hazkudeari ekarpenak



Fuente: BBVA Research a partir de INE (CRE)

3.2 grafikoa  
Euskadi: BPGren hazkundea BBVaren arabera (% UEEZ<sup>7</sup>)\*



\* 2016ko datuak aurreikuspenetan oinarritzen dira. Iturria: BBVA Research

## Gorantz jarraitzen du kontsumo pribatuak, horren indartsu ez bada ere

**Barne-kontsumoak bere hazkunde-mailari eutsi zion 2015ean. Kontsumo-adierazle partzial guztiak aurreko urteko hazkunde-erritmo antzekoan hazi ziren, kontsumo-inportazioak salbu, bizkortu egin baitziren horiek.** Etxeko gastuan aurrera egitea eragin zuten, historikoki baxuak diren interes-tipoei eustek eta familiek eskura duten errenta hobetzeak, enplegu sorrerak eta petrolioaren prezioa berriro jaisteak lagunduta.

**Urteko bigarren erdian indar txikiagoa erakutsi zuten adierazleek:** beheraldia izan zen kontsumo-inportazioetan 2015eko laugarren hiruhilekoan eta txikizkako salmentak, berriz, egonkortu egin ziren. Bat dator hori Euskadirako zehaztutako eskualdeko kontsumoaren adierazle sintetikoarekin -ISCR-BBVA<sup>8</sup>-, autonomia-erkidegoan gastuaren adierazle partzial nagusien seinaleak biltzen dituen (ikusi 3.3 grafikoa). Zehazki, barne-kontsumoa % 2,3 inguruan hazi zen Euskadin 2015ean ISCR-BBVA adierazlearen arabera; agregatu nazionala baino zortzi hamarren gutxiago, beraz.


**2016ko lehen hiruhilekoan, urtearen azken zatian sumatutako indar txikiagoa berretsi zuen kontsumoak.** Argitalpen hau ixteko unean eskura ditugun adierazle partzial batzuetan oinarrituta, bigarren hiruhilekoan neurri batean hori konpentsatu egin dela ikus daiteke (ikusi 3.1 koadroa), baina zuhurtziaz jokatzeke gonbita egiten digute adierazle kualitatiboagoek. Euskadiko jarduera ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren emaitzek (ikusi 3.4 grafikoa) gainbeherak jarrai dezakeela adierazten dute; ez soilik iazko urtearen lehen erdian gastua sustatu zuten aldeko haize batzuk apaldu egin direlako, baita lehen seihilekoan finantza-

7: Urtarokotasuna eta egutegi eraginak zuzenduta.

8: Kontsumo-adierazle sintetikoa eskualdeko gastu partzialen adierazle nagusietatik abiatuta osatzen da: txikizkako salmentak, ibilgailuen matrikulazioak, zerbitzuen sektorearen jarduera-indizea, kontsumo-ondasunen inportazioak eta barne-kontsumo nazionala. Adierazlea osatzeko metodologia osagai nagusien azterketan oinarritzen da. Informazio gehiago izateko, ikusi: R.1 *¿Afecta la evolución de la demanda doméstica al crecimiento de las exportaciones? in Situación España, 4 Trimestre 2015*, BBVA Research.


aberastasuna murriztu egin delako ere. Ziurgabetasunak goiti jarraitzen du, besteak beste hauteskunde-egutegiarekin lotuta eta, erreferendumaren ostean, Erresuma Batua EBtik irteteko prozesuaren ondorioz.

3.3 grafikoa  
**Euskadi eta Espainia: kontsumo-adierazle sintetikoa (h/h, %, UEEZ)**



Iturria: BBVA Research, Aduanetan, Trafiko Zuzendaritza Nagusian, CORESen eta INEn oinarrituta

3.4 grafikoa  
**Euskadi: txikizkako salmenten bilakaera Jarduera Ekonomikoaren gaineko BBVA Inkestaren arabera (erantzunen %)**



Iturria: BBVA

3.1.koadroa  
**Euskadi eta Espainia: kontsumo-adierazle nagusien bilakaera**

	Ibilgailuen matrikulazioa		Txikizkako salmentak		Zerbitzu sektoreko jarduera adierazlea		Kontsumo-ondasunen inportazioak*	
	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia
% h/h (UEEZ)								
1H14	-3,5	5,5	1,6	0,4	2,8	0,8	10,6	4,7
2H14	13,0	13,0	0,9	1,2	0,5	1,1	-6,6	5,0
3H14	4,8	-6,3	-1,3	0,4	0,0	0,9	3,2	2,3
4H14	6,5	9,2	1,5	1,0	2,1	0,6	3,6	0,2
<b>2014</b>	<b>19,9</b>	<b>20,0</b>	<b>1,5</b>	<b>0,9</b>	<b>4,2</b>	<b>2,7</b>	<b>0,1</b>	<b>13,7</b>
1H15	9,5	13,2	-0,7	0,7	-0,5	1,6	4,0	6,9
2H15	-0,2	-2,4	0,3	1,0	2,9	1,5	7,2	0,6
3H15	1,8	2,2	2,2	1,2	1,3	1,0	3,8	3,9
4H15	1,6	3,6	0,0	0,9	0,3	1,0	-1,5	0,0
<b>2015</b>	<b>21,8</b>	<b>22,9</b>	<b>1,3</b>	<b>3,6</b>	<b>4,3</b>	<b>4,8</b>	<b>14,1</b>	<b>12,3</b>
1H16	-0,9	4,0	0,7	0,8	0,8	0,4	-5,3	3,2
2H16(**)	3,4	6,3	1,5	0,5	0,3	0,2	9,8	1,6
<b>2016n metatua (u/u)</b>	<b>2,3</b>	<b>13,0</b>	<b>2,0</b>	<b>4,4</b>	<b>4,0</b>	<b>3,8</b>	<b>4,8</b>	<b>8,0</b>

\* Kontsumo-ondasun iraunkorren eta kontsumo-manufakturen inportazioak.

(\*\*) Txikizkako salmentak, zerbitzuen sektoreko jarduera-indizea eta matrikulazioak; maiatz arteko informazioarekin egindako aurreikuspena; inportazioak, apiril arteko informazioarekin egindako aurreikuspena.


Iturria: BBVA Research, INEn, Trafiko Zuzendaritza Nagusian eta Datacomex-en oinarrituta.

## Susperraldi ekonomikoa eta gastuaren hedapenaren gaineko kontrola lagungarri izan ziren 2015ean egonkortasun-helburua bete ahal izateko

**Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) eskualdeko BPGren % 0,7ko defizitarekin itxi zuen 2015. urtea**, aurreko urtean izandakoa baino hiru hamarren gutxiago (ikusi 3.5 grafikoa). Hala, 2015erako ezarritako egonkortasun-helburua bete zuten hiru autonomia-erkidegoetako bat izan zen EAE. Espero bezalako susperraldia izan zuten diru-sarrerek Euskadin, Foru Aldundien ekarpenen gorakada tarteko. Bestalde, EAEko 2015eko gastuak egonkor samar eutsi zion, aurreko urtekoarekin alderatuta. Interesen kargan eta kapital-gastuetan sumatutako doikuntzak konpentsatu egin zuen tarteko kontsumoetan eta soldatapekoen ordainsarian izandako hedapena. Horren ondorioz, lehen mailako gastua hamarren bat baino ez zen hazi 2014koarekiko. Horrela, sumatutako doikuntza BPG nominalaren hobekuntzari lot geniezaioke, ia esklusiboki (ikusi 3.6 grafikoa).


2016ari dagokionez, aurrekontuen gauzatzeari buruz apirilera arte ezagutzen diren datuek **gastuari eusteko politikak jarraitu egiten duela adierazten dute**, zorraren interesak eta gizarte-laguntzak murrizteak ere lagunduta. Urteko lehen hilabeteetan, aurreko urteko dinamismoari eutsi diote diru-sarrerek. Ondorioz, Euskadik lehen lauhilekoan izandako superabita iaz epe berean izandakoaren ia bi hamarren gainetik dago.

3.5 grafikoa  
EAE: finantzaketarako gaitasuna/beharra (eskualdeko BPGren %)



Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta

3.6 grafikoa  
EAE: autonomia-erkidegoko doikuntzari egindako ekarpenak (eskualdeko BPGren %)



Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta

## 2015eko obra publikoen lizitazioiko gainbeherak jarraitu egin du 2016aren hasieran


**Euskadik 2015ean inbertsio publiko esanguratsua jaso zuen eskualdeetako bat izaten jarraitu zuen. Lizitazioak % 2,9 behera egin arren, BPGren 1,7 puntu adina izan zen** (BPGren 0,9 puntu Espainian, % 23,8 jaitzita). Ia egonkortze horren zergatian da obra zibilaren murrizketa (-% 15,5), eraikuntzak % 52,0-ko hazkundearekin ia konpentsatu izana (ikusi 3.7 grafikoa). Eraikuntzan, gorakada irakaskuntzarako eraikinetan, administraziokoetan, industrialetan eta terminalan eman zen. Obra publikoan, aldiz, murriztu egin zen lizitazioa errepide, trenbide eta hirigintza-lanetan<sup>9</sup>.

Erakunde finantzazailerai dagokienez, **bai estatuak eta bai lurralde-erakundeek lizitazioetako zenbatekoa apur bat murriztu zuten 2015ean** (% 3,6 eta % 2,5, hurrenez hurren). Ondorioz, lurralde-erakundeek obra publikoen lizitazioan duten pisua % 62,2ra iritsi zen 2015ean (ikusi 3.7 grafikoa).

9: Horrez gain, azken asteotan kaleratutako zenbait albistetan jakinarazi da obrak ez direla hasi Bergarako lotunean, esleituak izan eta urtebetera, Sustapen Ministerioaren eta bost zati gauzatzeko esleipena duten enpresen artean sortutako desadostasunen ondorioz. Horregatik, kontratuak deuseztatu eta lanak berriro eskaintzeko aukera hausnartzen ari da Ministerioa. Erabaki horrek zuzen-zuzeneko eragina izango du euskal ekonomiaren inbertsioaren saillean. Ikusi: (<http://www.deia.com/2016/06/16/sociedad/euskadi/fomento-rescinde-los-contratos-de-las-obras-el-nudo-de-bergara-de-la-y-vasca>)


Eskura ditugun azken datuetan (2016ko lehen bost hilabeteetakoak), ikusten da Euskadin lizitazioa gehiago uzkuritu dela urte artean, Espainia osokoarekin alderatuta: **-% 33,4** batean, eta **-% 23,7** bestean. Honen atzean daude, eraikuntzako lizitazioaren gainbehera (-% 43,3) eta, batez ere, obra zibilak berriz atzera egin izana (-% 30,0). Eraikuntzako jaitziera Espainia osoan izandakoa baino handiagoa bada ere, obra zibilen kasuan parekoa da. Beheraldia orokorra da erakunde finantzatzaileen artean: lehen bost hilabeteotan Estatuarena % 40,8 jaitzi da eta lurralde-erakundeena % 26,2 (ikusi 3.8 grafikoa).

3.7 grafikoa  
Euskadi: lizitazio-aurrekontua eragileko (milioi eurotan)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

3.8 grafikoa  
Herri-lanak, 2016ko urtarrietik maitzera metatua: hazkundea (u/u, %) eta ekarpenak obra motaren arabera (p.p.)



Iturria: BBVA Research, SEOPANen oinarrituta

## Inbertsio pribatua hazi egin zen 2015ean

Inbertsioa bizkortu egin zen Euskal Autonomia Erkidegoan 2015ean, urtea % 2,0ko hazkundearekin amaituz<sup>10</sup>, finantzaketa-baldintzak, konfiantza, Europako ekonomiak eta eskari-zorroak lagun.

**Hazkunde horrek ekipamendu-ondasunen inportazioak (+% 20,0 u/u) nahiz bizitegiz besterako eraikuntza bisatuak<sup>11</sup> izan zituen oinarri**, nabarmen hazi baitziren biok, oro har estatuan izandako batez bestekotik gora. Hala, 2014an hondoa jo ostean, bizitegiz besterako eraikinetarako bisatuen azalera<sup>12</sup> % 179,8 (u/u) hazi zen Euskadin iaz eta, Espainia osoan aldiz, batez beste % 28,9 hazi zen (ikusi 3.9 grafikoa). Erabileren arabera zehaztuz gero, garraio-zerbitzuetara eta bulegotara zuzendutako eraikinen hazkundea nabarmentzen da: 2014an batere bisaturik ez izatetik, 2015ean 21 mila metro koadroko azalera izatera iragan zen arlo hori. Industria-erabilerara zuzendutako eraikinen hazkundea ere garrantzitsua izan zen, 2015ean eraikitako guztiaren % 31,4ra iritsi baitzen. Dena den eta hazkundeak hazkunde, 2015ean bisatutako azalera osoa 2008ko lehen lauhilekoan bisatutakoa adina da eta, horrek argi erakusten duenez, susperraldi hori maila txikietatik abiatu da.

**Urtearen lehen lauhilekoko datu garrantzitsuek erakusten dute bizitegiz besterako eraikuntzaren dinamikotasuna Espainiako batez bestekoaren gainetik dagoela.** Espainiako jaitzieraren parean (-% 3,8), urtarrietik apirilera % 38,4 hazi zen urte arteko tasan Euskadin bisatutako azalera. Merkataritza-zerbitzuei eta biltegiei lotutako eraikinetan oinarritu zen hazkunde hori, turismo eta aisialdikoetan eta, gainera, industriakoetan ere bai; eta azken hau, makineria eta horniduren ataleko inbertsioen aurrekari izan daiteke. Ildo horretan, **ekipamendu-ondasunen inportazioak gainditu egiten du 2008ko lehen**

10: Eustaten datuen arabera.


11: Askotariko erabilera duten eraikinak, besteak beste, merkataritza-zerbitzuetara eta biltegiak, nekazaritza eta abeltzaintzako jardueretara, industriara, bulegoetara, turismo eta aisialdira nahiz garraio-zerbitzuetara zuzentzen direnak.

**hiruhilekoan izandako maila;** Espainian, aldiz, 15 p.p. beherago legoke atal hori (ikusi 3.10 grafikoa). Urtarokotasuna zuzenduta, apirileko datuek balizko hobekuntza iradokitzen dute, lehen hiruhilekoko hazkunde ahularen ostean (+% 0,6 h/h).

Dena den, bada hobekuntza horri ñabardurak jartzen dizkien adierazlerik, hala nola Eustatek kapitalaren eraketa gordinari buruz egindako balioespena (+% 3,6 u/u, baina -% 0,2 h/h 2016ko lehen hiruhilekoan), edota **Euskadiko Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta; datuok erakusten dute bilakaera hori oraindik hauskorra dela eta arrisku handipean gertatzen ari dela**, lehenaz gain Espainiako ekonomia-politikari buruzko ziurgabetasunak, udazkeneko euskal hauteskundeak edo Erresuma Batua EBtik bereizteko prozesuak areagotuak. Hala, 2015eko lehen inkesta sektore guztiekiko baikor agertu ostean, iazko bigarren seihilekotik halako gainbehera bat nabari da aurreikuspenetan (inbertsio industrialean saldo garbi negatiboak agertzeraino) eta, salbuespentzat, 2016ko bigarren hiruhilekoan zerbitzuetan izandako hobekuntza (ikusi 3.11 grafikoa).

3.9 grafikoa


**Euskadi eta Espainia: bizitegiz besterako eraikuntzako bisatuetan (m<sup>2</sup>) eta ekipamendu-ondasunen inportazioetan 2015ean izandako aldaketak (% u/u)**



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en eta Sustapen Ministerioan oinarrituta

3.10 grafikoa


**Euskadi eta Espainia: ekipamendu-ondasunen inportazioak (1H08=100, h/h, UEEZ)**



Iturria: BBVA

3.11 grafikoa

**Euskadi: inbertsioaren bilakaera, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren arabera (erantzun-saldoak, %)<sup>13</sup>**



Iturria: BBVA

13: Laginaren hedadura mugatua denez, ezinezkoa da emaitzak urtarokotasun eta egutegi-eraginetatik zuzenduta ematea.

## 2016aren hasieran apaldu egin da 2015ean Euskadiko higiezin merkatuak erakutsitako dinamismoa

2015ean eskariak bilakaera positiboa izanik, etxebizitzaren prezioen azken urteotako gainbehera apaldu egin zen. Gainera, eraikuntza jarduera azkartuz joan zen iazko urtean. Baina hobekuntza ahula da oraindik ere eta, horren erakusgarri, etxebizitza prezioak ez haztea edota 2016ko lehen datuetan etxebizitza berrien bisatuak gutxitzea.

**2015ean etxebizitzaren salmentak dinamismo handiagoa erakutsi zuen Espainia osoan baino.** Zehazki, iazko ekitaldian salmentak % 18,2 hazi ziren 2014koekin alderatuta eta, Espainian, batez beste % 9,9 hazi ziren. Aurreko urteetan bezalatsu, Euskadiko higiezin merkatua oso lotuta dago eskualdeko egoiliarren jokabidearekin eta horiei dagozkien transakzioak % 18,2 hazi ziren. Salerositako etxebizitzaren ia % 95 egoiliarrek erosi zituzten, % 3 atzerritarrek (% 45eko igoera urtean), eta % 2 baino ez beste autonomia-erkidego batzuetan bizi direnek.

**2016an salmenten dinamismoak jarraitu egin du, erritmo apur bat motelagoan bada ere.** Urtearen lehen hiruhilekoan, Euskadiko etxebizitzaren transakzioak % 13,0 hazi ziren. Euskadiko salmenten trakzio-faktore bakarra barne-eskaria denez, hobekuntza hori Espainian osotara izan den % 20,6tik azpikoa izan da (ikusi 3.12 grafikoa).


Probintziaz probintzia, Bizkaiak izan zuen hazkunderik handiena 2015eko salmentetan, % 25,2ko hazkundera izan baitzuen urte artean. Gipuzkoa kokatu zen bigarren tokian (% 11,5) eta Araba azkenekoan (% 8,2). Aurtengo lehen hiruhilekoan, ordena hori alderantzizkoa izan da, Araban hazi baitira gehien salmentak (% 37,4). Gipuzkoa (% 19,3) eta Bizkaia (% 5,7) etorri ziren gero.

Salmentak hazi arren, 2015ean ez zen etxebizitzaren prezioa igo. Sustapen Ministerioaren datuen arabera, etxebizitzaren prezioak hiruhileko % 0,3 egin zuen behera batez beste (UEEZ). Ildo horretatik, **2015. urte amaieran % 1,1 jaitsi zen etxebizitzaren prezioa 2014koarekiko**, eta alde nabarmena erakusten du datu horrek Espainiako % 1,1eko batez besteko igoerarekiko. 2016ko lehen hiruhileko datuek aurreko urteko joera berresten dute. 2016ko lehen hiruhilekoan, etxebizitzaren prezioa % 1,0 (h/h) jaitsi zen (UEEZ) eta, Espainian aldiz, % 0,7 (h/h) hazi zen batez beste. Urte arteko datuei erreparatuta, eskualdean % 1,9 egin zuen behera etxebizitzaren prezioak eta, aldiz, % 2,4 handitu zen Espainian.

**Etxebizitza berrien bisatuen sinadura batez bestekoa baino gehiago hazi zen 2015ean Euskadin**, aurreko urtean hasitako hazkunde txikia berretsiz. 2014an % 2,0 gehitu ostean, iazko urtean etxebizitza berriak eraikitzeko bisatuen sinadura % 45,5 hazi zen Euskadin, Espainiako batez bestekoa baino 3 p.p. gehiago (% 42,5). Probintziaz probintzia, bisatuak Bizkaietan % 5,1 gutxitu baina gainerakoetan gehitu egin zirela ikusiko dugu. Araban, % 129,0ko hazkundera izan zuten eta % 110,5ekoa Gipuzkoan. Lehen lauhilekoan, % 42,7 egin dute gora urte artean (Espainiako batez bestekoarekin lerratuta). Hala ere, hiruhilekoan etxebizitza berriak eraikitzen hasteko baimenak % 30,8 gutxitu ziren (UEEZ), 2015eko laugarren hiruhilekoarekiko (ikusi 3.13 grafikoa). Probintziaz probintzia, bisatuen sinadurak bilakaera onena Bizkaietan izan zuen 2016aren hasieran eta Araban jaitsi zen gehien.

3.12 grafikoa


**Euskadi: etxebizitzaren salmentak urte arteko hazkundeari egindako ekarpena (p.p.)**



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

3.13 grafikoa

**Euskadi: etxebizitza berrien eraikuntzarako bisatuak (UEEZ datuak)**



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

## Ondasunen esportazioek hobekuntza sendorik erakutsi gabe jarraitzen dute

**Euskadin, ondasunen esportazio errealak % 0,9 jaitsi ziren (u/u) 2015ean; Espainia osoan, berriz, % 3,5eko hazkundea izan zen.** Produktu energetikoak azterketatik kanpo utzita, iazko urte hasieran Muskizko findegian egindako geldialdi teknikoak eragin distortsioa saihesteko, esportazio nominal ez-energetikoak hazi egin ziren eskualdean. Baina hala ere, Espainiak batez beste esparru horretan erakutsitakoa baino jokabide okerragoa izaten jarraitzen du eskualdeak: urte artean, +% 1,3koa izan da batean, eta % 6,6koa bestean (ikusi 3.14 grafikoa).

**Eskura ditugun aurtengo datuen argitan, 2016an ez da hobekuntza sendorik sumatzen: bigarren hiruhilekoan susperraldi bat izan daitekeela dirudi (apirilera arteko datuekin), 2016ko lehen hiruhilekoan izandako erorikoaren ondoren;** 2014. urtera arte nagusi ziren hiru sektoreei eragin zien gainera eroriko horrek (ekipo-ondasunak, produktu erdi-manufakturatua, eta energia<sup>14</sup>). 2016ko bigarren hiruhilekoan, eroriko hori konpentsa dezakete Euskadiko esportazioek, hiruhilekoen artean % 8,3ko hazkundea (UEEZ) izan baitezakete (ikusi 3.2 koadroa). Hortaz, Euskadiko kanpo-sektorearen dinamismo mugatuak baldintzatzen du eskualdeko ekonomia, aldizkari honen aurreko edizioetan adierazitakoaren ildotik<sup>15</sup>.

**Sektorekako ikuspegitik, ondasun esportatzaile diren euskal segmentu nagusiek ez dute erakusten oraindik hobekuntza sendo eta erregularrik.** Ekipo-ondasunek eta produktu erdi-manufakturatuek –salmenta guztien bi heren adierazten dutenak– ez dute hazkunderik izan segidako bi hiruhilekotan 2014ko azkenetik. Energia sektoreak, 2015eko lehen hiruhilekoan jada aipatu eskaintza-faktoreen eragina jasan ostean, egoera berri eta konplexu bati egin beharko dio aurre, petrolioaren prezio baxuak tarteko. Hala, **automobilgintzak soilik izan du hazkunde jarraitua 2015eko bigarren hiruhilekotik** (iazko esportazioen % 16 inguru eragin zuen). Ziurgabetasun geopolitikoa handitzeak eta gorabidean diren herrialdeak mantsotzeak eragina izan dezakete ekipo-ondasunetan eta, produktu erdi-manufakturatuen atalean, altzairu sektoreak lehiakortasunarekin eta gehiegizko eskaintzarekin lotutako arazoak agertu direla dirudi, enpresa garrantzitsuenetako batzuren kaltetan.


14: 2015ean, automobilgintzaren sektoreko esportazioek gainditu egin zituzten energia sektorekoak.

15: Ikusi: [https://www.bbva-research.com/wp-content/uploads/2016/02/Situacion\\_PaisVasco\\_2015\\_Cap3.pdf](https://www.bbva-research.com/wp-content/uploads/2016/02/Situacion_PaisVasco_2015_Cap3.pdf)



3.14 grafikoa

**Euskadi eta Espainia: ondasun ez-energetikoen esportazio nominalak (1H11=100, h/h, UEEZ)**



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

3.2 koadroa

**Euskadi: esportazio nominalen hazkunderi egindako ekarpena sektoreka (% h/h, UEEZ)**


Ekarpenak	Guztira	Ekipo-ondasunak	Erdi-manuf.	Energia	Automobilgintza	Elikagaiak	Gainerakoak
mar.-2015	-13,5	-3,4	-1,5	-6,9	-0,7	-0,9	-0,1
eka.-2015	9,2	-2,0	-0,9	9,0	2,2	0,4	0,5
ira.-2015	5,7	5,2	-0,6	-0,1	1,6	-0,2	-0,3
abe.-2015	-2,8	-2,4	2,1	-3,8	0,9	0,2	0,1
mar.-2016	-6,2	-2,0	-2,4	-2,9	1,7	-0,2	-0,4
eka.-16*	4,3	2,0	-0,3	1,5	0,8	0,3	0,0
<b>GUZTIRA 2015</b>	<b>100%</b>	<b>37%</b>	<b>28%</b>	<b>11%</b>	<b>16%</b>	<b>4%</b>	<b>5%</b>

\* Apirilean eskura ditugun datuekin egindako balioespena.  
Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

Euskadiko esportazioetan nagusi diren zenbait produktu-talde xehetasun handiagoz aztertzerakoan<sup>16</sup>, **automobilgintzaren bilakaera positiboaz gain<sup>17</sup>, kontrajarritako joerak sumatzen dira zenbaitetan, ekipo-ondasunen eta produktu erdi-manufakturatuen ataletan.** Joera kontrajarri horiek azalduko lukete agregatuaren suspertzeko joera argirik eza. Kapital-ondasunetan, batetik makineriak eta tresna mekaniko eta elektrikoek hobera egin dute pixkana 2011tik, eta esportazio guztien % 20 adierazten dute ia, azken urtean % 14ko hazkunde metatuta. Bestetik, erorikoak ikusten dira gainerako garraio-materialen atalean: progresiboki egin du behera aireontzien taldeak, eta irregularragoa izan da gainbehera hori itsasontzien eta trenbideetako materialen taldean. Osotara, tren, hegazkin eta itsasontzien esportazioak % 5,1 ziren Euskadin 2011n, eta % 3,8 baino ez dira 2015ean. Kapital-ondasunekin gertatzen denaren antzekoa gertatzen da produktu erdi-manufakturatuetan ere: azpisektore orokorrenak, galdaketa, burdina eta altzairua biltzen dituenak, 3 p.p. galdu ditu kuotan, eta Euskadiko esportazioen % 8 adierazi dute 2015ean (% 22,0 erori da 2011tik); horrekin batera, metalezko askotariko manufakturen salmenta % 24,9 hazi da, produktu-talde horrek oraindik garrantzi txikia badu ere (egun esportazioen % 1,3 da). Orohar, krisialdiaren ostean, **badirudi zenbait industriak edo produktu-taldek modu jarraituan hazteko ahalmena dutela baina, aldiz, beste batzuek ahalmen hori galdu egin dutel, baita eskari agregatua suspertzen den inguruneetan ere (ikusi 3.15 grafikoa).**

16: Oro har, esportazio guztien balio nominalaren % 45 adierazten dute, bai 2011n eta bai 2015ean.  
17: Atal honen barruan sartzen dira automobilgintzako osagaiak, trakzio-ibilgailuak, bizikletak...

3.15 grafikoa

**Hautatutako produktu-taldeen euskal esportazioak: urteko batez besteko ekarpena hazkunde nominalari (%), bolaren neurria: esportazioen garrantzia 2015ean)**

Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

**Eremu geografikoei dagokienez, Asiarako egindako salmentak murrizteak azaltzen du 2015ean Euskadiko esportazioetan izandako eroriko nominalaren bi heren (2,4 p.p.).** Afrikara eta EB-28ra zuzendutakoek 0,7 p.p. kendu zizkioten hazkundeari, baina EBtik kanpoko Europako herrialdeetara eta Erdialdeko eta Ipar Amerikara egindakoetan, 0,4 p.p.-ko ekarpena egin zuen horietako bakoitzak (ikusi 3.16 grafikoa). 2016ko lehen lauhilekoko datuek susperraldi bat erakusten dute eta, 2011n eta 2014an gertatu bezala, bat dator hori **EB-28ra** zuzendutako salmenten hazkundearekin. **Euskadirako mugari izaten jarraitzen dute EB-28ko herrialdeek, kuotaren bi heren baitagozkio ia.** Erdialdeko eta Ipar Amerikan, berriz, % 10eko atalasea gainditu zuen 2015ean, eta hortik behera egin du Asiak (euskal esportazioen % 8,6).


**Herrialdekako ikuspegitik, bai Asiaren kasuan eta bai EB-28ren kasuan esportazioetan izandako beherakada Herbehereetara eta Txinara zuzendutako salmenten gainbeherak azalduko luke.** 2014an herrialde horietara zuzendutako salmentak nabarmen hazi ostean, salmenten bolumena 2013 eta aurreko urteetako mailetara itzuli zen ia: murrizketa handiak izan ziren, % 39,0koa eta % 30,5koa, hurrenez hurren, eta, hala, beste herrialde batzuetara zuzendutako salmentetan izandako jokabide positiboa konpentsatu baino gehiago egin zuten. European, Frantziara (+% 5,6) eta Alemaniara (+% 2,4) zuzendutakoek ari gara, adibidez edota, Asiako artean, Hego Koreara zuzendutakoek (+% 8,9). Erdialdeko eta Ipar Amerikan hautemandako hobekuntza sustatu zuten Estatu Batuetakoek (+% 0,7) eta Mexikokoek (+% 12,2), eta bezeri nagusien artean hirugarren eta hamargarren lekuak bete zituzten biek, hurrenez hurren. Brasilgo uzkurraldiak bertara zuzendutako esportazioen atzeraldia eragin zuen euskal esportazioetan, % 20,5 jaitsi baitziren. Gainera, gorabidean diren beste herrialde batzuetara egin salmentak hazi egin ziren 2015ean, Indonesiakoak, kasu (Euskadiri erositakoak hirukoiztu egin zituen ia) edota Turkiakoak (+% 16,2); biak batera hartuta, Mexikora egindako salmentak gainditu zituztelarik.

**Eskualdeko ondasunen inportazioei dagokienez, 2015ean termino errealetan hazi egin ziren (+% 4,7 u/u);** epe berean Espainian 6,4 p.p.-eko hazkundea izan zuten (ikusi 3.17 grafikoa), urtearen erdialdeko hiruhilekoen hazkundea medio. Termino nominaletan % 1,9ko beherakada (u/u) izan zen eskualdeko inportazioetan, produktu-energetiko eta lehengaietan izandako murrizketen ondorioz (-% 26,2 u/u eta % 7,9 u/u); Euskadiko inportazioen % 45 adierazten dute atalok eta, beraz, gainerako ataletan izandako hazkundeak konpentsatu eta gehiago egin zituzten. **Eskuragarri dauden aurtengo lehen datuek adierazten dute inportazioek % 7,9 inguruko (u/u) murrizketa nominala izan dutela** lehen seihilekoan, 1H16ko beherakada (% 12,6 h/h) 2H16ko gorakadak partzialki konpentsatu ondoren (+% 10,3 h/h); produktu

energetikoen inportazio txikiagoak azalduko luke joera hori, bai eta gainerako segmentuen geldotze txikiagoak ere. Bi hiruhilekoetan hazkundeak dituen bakarra ekipo-ondasunen atala da.

3.16 grafikoa


**Euskadi: ondasunen esportazioak helmugako herrialdeen arabera (ekarpena p.p.-tan, u/u, nominala)**



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

3.17 grafikoa

**Euskadi eta Espainia: ondasun errealen inportazioak (1H11=100, UEEZ)**



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

**Laburbilduz, ondasunen kanpo-fluxuen bilakaerak 5.148 milioiko superabit komertziala (eskualdeko BPGren % 7,8) sortu zuen 2015ean, 2014an baino 0,6 p.p. txikiagoa;** produktu energetikoak alboratuta, saldo komertziala 7.407 milioikoa litzateke (BPGren % 11,2). Energia sektorearen bilakaerak eskualdeko kanpo-sektorea baldintzatzen jarraituko du, inportazioen herena baino gehiago eta esportazioen hamarrena biltzen baitu. Hala ere, ekipo-ondasunen eta produktu erdi-manufakturatuen esportazioak hobetzeko gaitasunean oinarrituko da, batez ere, Euskadiko kanpo sektorea, bai eta automobilgintzaren bilakaeran ere. Horretan, Espainiako barne-merkatuaren hobekuntza ere euskarri garrantzitsua izan daiteke.

## Bidaiariak eta ostatu-gauek gora egin dute bai iaz eta bai aurtengo orain arteko datuetan, nabarmenago atzeritarren artean


**2015ean, Euskadiko turismo-sektoreak bilakaera ona izan zuen, hoteletara jotzen duten bidaiarien kopuruari dagokionez nahiz establezimenduotako osatu-gauen kopuruari dagokionez.** Hazkundera batez besteko nazionalaren gaineratik kokatu zen bi kasuetan: bidaiarien atalean, % 8,0koa (u/u), Espainiako batez bestekoa baino 1,7 p.p. handiagoa; eta, ostatu-gauen atalean, (+% 10,1 u/u), 5,6 p.p. handiagoa. Familiek eskuragarri duten errenta handitzea, konfiantza sendotzea eta petrolio-prezioen beherakadaren ondorioz garraio-kostuak murriztea izan zituen euskarri hazkunde horrek.

**Eskualdera etorritako hamar bisitaritatik sei pasatxo izan dira espainiarrak eta, beraz, bereziki onuragarriak izan dira sektorerako Espainian bai barne-eskaria, bai enplegua, sustatzea.** Hala ere, nazioarteko bisitarien eta, bereziki, horien ostatu-gauen ehunekoetan handiagoa izan da hazkundera (% 9,0 eta % 10,6 u/u, hurrenez hurren). Argitalpen hau ixterakoan eskura ditugun datuek (urtarokotasuna zuzenduta) argi erakusten dute bidaiariak eta ostatu-gauen dinamismoari eutsi egin zaiola urtearen lehen hiruhilekoan, baina apur bat txikixeagoa izan daiteke bigarrenean, batik bat espainiarrei dagokienez (ikusi 3.18 grafikoa).

Bestalde, hotelen prezioak suspertzen jarraitzen dute eskualdean, 2014an hondoa jo ondoren, eta amaitua legoke krisiaren ondoriozko doikuntza, Kantauri aldeko beste eskualde batzuetan baino arinagoa izan zena. Ildo horretatik, 2015ean kantitateen hazkundera bat etorri zen **hotelen sektoreko prezioen hazkundearekin** (% 3,9% u/u). Eta joera horri eutsi egin zaio urtearen lehen hiruhilekoan (ikusi 3.19 grafikoa).

3.18 grafikoa


**Euskadi eta Espainia: bidaiarien kopurua (mar-11=100, h/h, UEEZ)**



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.19 grafikoa

**Hoteletako prezioen indizea (2008=100)**



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

**Bizkortzen ari da enplegua, estatuko batez bestekoaren azpitik jarraitu arren**

**Eskualdeko lan-merkatuak hobetzen jarraitu zuen 2015ean: bai Gizarte Segurantzako afiliatuetan, bai Biztanleria Aktiboaren Inkestako (BAI) enpleguan, 20.000 lagunengorakada izan zen.** Bi adierazleetan % 2,3ko hazkundea da hori. Kopuru hori 2007tik izan den afiliazio gehikuntzarik handiena da, nahiz eta eskualdean Espainian baino 0,7 p.p. gutxiago hazi eta berau hazkunde apalenetakoen artean kokatu, Galizia eta Asturiasekin batera.

**Aurtengo datuek diote lehen seihilekoan lan-merkatuak antzeko hazkunde-erritmoa izan duela Euskadin.** Hala, hiruhileko afiliazio hazkundea % 0,5 izan da, nola lehen hala bigarren hiruhilekoan, urtarokotasuna zuzenduta. Batez besteko nazionalaren azpitik dago hori (ikus 3.3 koadroa), batik bat ekarpen txikiagoa egin dutelako, bai sektore publikoak, bai merkataritza, ostalaritza eta garraio sektoreak. Nolanahi den, hazkunde positiboko hamaika hiruhileko jarraian lotzea dakar. Biztanleria Aktiboren Inkestaren (BAI) kasuan, 9 mila landun gehiago zenbatu ditu aurtengo lehen hiruhilekoan (+% 0,9 h/h UEEZ).

**Sektorekako ikuspegitik, Gizarte Segurantzako afiliatuen hazkundeak (UEEZ) 2015ean Espainian izandako osaeraren antzekoa erakusten du. Euskadiren kasuan indar gutxiagoz bada ere, zerbitzuen ekarpena nabarmentzen da, nola publikoena hala pribatuena (jarduera profesionalak, ostalaritza eta merkataritza).** 2016. urtearen lehen erdian, manufakturen sektoreak ere egin dio ekarpena hazkunderari, nahiz eta jarduera profesionalena eta zerbitzu sozialena handiagoa izan bi eremutan eta, Espainiaren kasuan, baita merkataritza, ostalaritza eta garraioarena ere (ikus 3.3 koadroa). Joera hori bat dator BAIK erakusten duenarekin, manufakturetako enpleguaz gain zerbitzuena (pribatu nahiz publikoak) ere handitzen dela baitio. Baina, adierazle horrekin historikoki gertatu bezala, aldakortasun handiagoarekin islatzen ditu joerok.

3.3 koadroa

Gizarte Segurantzako afiliazioak hazkundeari egindako ekarpena (p.p. eta %, h/h, UEEZ)

	Euskadi						Espainia					
	1H15	2H15	3H15	4H15	1H16	2H16	1H15	2H15	3H15	4H15	1H16	2H16
Nekazaritza	0,0	0,0	0,0	-0,0	0,1	0,0	-0,1	0,2	0,0	0,0	0,0	0,0
Erauzketa ind. eta energia	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Manufaktura	0,0	0,1	0,0	0,0	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1
Eraikuntza	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0
Merk., garraioak eta konpon.	0,1	0,1	0,0	0,0	0,1	0,1	0,2	0,2	0,1	0,1	0,2	0,2
Ostalaritza	0,1	0,1	0,0	0,0	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1
Komun., finantzak eta higi.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1	0,1	0,0	0,1	0,0	0,0
Jarduera profes.	0,2	0,2	0,0	0,0	0,1	0,1	0,2	0,2	0,1	0,1	0,1	0,2
Zerbitzu publikoak	0,1	0,1	0,0	0,0	0,1	0,1	0,3	0,1	0,0	0,1	0,2	0,2
Gizarte-zerb. eta arte-jar.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Gainerakoak (etxea barne)	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
<b>Guztira</b>	<b>0,6</b>	<b>0,7</b>	<b>0,3</b>	<b>0,6</b>	<b>0,5</b>	<b>0,5</b>	<b>1,0</b>	<b>1,1</b>	<b>0,3</b>	<b>0,7</b>	<b>0,8</b>	<b>0,9</b>


Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzaren oinarrituta

Horrek guztiak, langabeen kopurua % 10 inguru jaistarekin eta biztanleria aktiboak beherakada handiagoa izatearekin batera (-%0,6 u/u eskualdean, eta -% 0,1 Espainian), batez besteko langabezia-tasa 2014koarekiko 1,6 p.p. jaitea eragin zuten (2,4 p.p. Espainian). Beheraldi txiki horri eutsi egiten zaio 2016ko lehen hiruhileko BAIn ere, joera hori leunago ageri den arren. Horrela, langabezia-tasa % 12,8an kokatu da, azken lau urteetako mailarik txikienean (ikusi 3.20 grafikoa). Hala eta guztiz ere, eskualdean lan-merkatua suspertzen ari dela erakusten duten sintomak izan arren, langabezia-tasa 1H08an erregistratutakoa baino 7 p.p. handiagoa da.

Langabeziaren iraupenaren barne-osaketari dagokionez, luzaroko langabeen zenbatekoa zertxobait handiagoa da Euskadin Espainian baino. Espainian langabe bi urte baino gehiago daramatenak % 43,2 dira eta, Euskadin berriz, % 45,9 (ikusi 3.21 grafikoa). Gainera, larriagoa da ratio horrek zuzentzeko erakusten duen ahalmen txikia, gorantz baitoa ia etengabe 2010etik. Langabezia egoera kroniko bihurtzen ari dela erakusten du horrek, eta eskualdean 60 mila pertsonatik gora daude egoera horretan.

3.20 grafikoa


Euskadi eta Espainia: BAiko langabezia-tasaren bilakaera (biztanleria aktiboaren %tan, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.21 grafikoa

Euskadi eta Espainia: langabezia-egoeran 2 urte baino gehiago daramaten langabeak (%)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

## 2016-2017rako agertokia: hazkundera % 2,5 inguruan egonkortuko da

Atal honen sarrerakoan aurreratu dugunaren ildotik, jardueraren susperraldiak jarraitu egingo du eskualdean, Espainiako ekonomiaren susperraldi progresiboak eta Europaren egoera ekonomikoak eutsitako agertokian. Eskualdeko susperraldia egonkortu egingo da, kontsumoaren bultzada eta esportazioena ere apur bat txikiagoa izatearen ondorioz, arrisku gorakorrek dituen ingurunean. Baina erritmo hori azken hogeita hamairu urteotako batez bestekoaren (% 1,6) ia puntu bat gainera dago. Gauzak horrela, **2016an eskualdeko BPGk % 2,4 gora egitea espero da eta % 2,5 2017an, euskarritzat kanpo-faktoreak nahiz barne-faktoreak hartuta.** Hazkunde horrek **biurtekoan 37 mila enplegu baino zertxobait gehiago sortzeko aukera emango du eta 2017aren amaieran langabezia-tasa % 9,6raino jaistekoa.**

**Kanpora begira, munduko ekonomiak pixkana hazten jarraituko du** eta, petrolioaren prezio baxuak eta kanbio-tasa onuragarriak lagun, ondasunen esportazioak eta turismoa sustatuko ditu. Dena den, Txinaren dezelerazioak, libera esterlinarraren deprezioazioak (erreferendum britainiarraren ostean handitua) nahiz euroaren egonkortzeak –ez da espero lehiakortasun-irabazi gehigarriak sortuko dituenik– moteldu egin dezakete Europaren eta ekonomia garatuen dinamismoaren eragin positiboa. **Estatu-mailan, kontu publikoak finkatzeko prozesuaren luzapenean, zenbait barne-desorekaren zuzenketa eta ezarritako erreformen eraginean oinarrituko da hazkundera.**

## Petrolioaren prezio baxuak eta diru-politika susperraldiaren euskarri

**Petrolioaren prezioak baxu jarraitzeak jarduera sustatuko du berriro.** Upel petrolio gordinak berriki hartutako beherazko joera zuzendu badu ere, prezioak merke jarraituko du datozen bi urteetan bederen. Eskualdearen mendekotasun energetikoa ikusita eta nagusiki eskaintza *shock* baten ondorio denez, familiek eskuragarri duten errenta handitzea eta ekoizpen-kostuak eta enpresa eta turisten garraio-kostuak murriztea espero da. Horrek guztiak kontsumoa, enpresen marjinak, inbertsioa eta merkataritza-fluxuak sustatuko ditu, eta **1,2 p.p.-ko ekarpena egingo dio eskualdearen hazkunderari 2016an**<sup>18</sup>, bai garraio kostuen eraginagatik (ikus 3.22 grafikoa), bai eta eskidegoak energia intentsitate handiko ondasunen ekoizpenen duten espezializazio erlatiboagatik ere.


**Hazkunderaren euskarri izango da diru-politika.** Euroguneko ekonomiaren hazkunderari eta inflazioari lotutako arriskuak nola areagotu diren ikusita, **jokabide irmoa erakusten jarraitzen du EBZk:** martxoan, tasak murriztu eta aktiboak erosteko programa hedatu zuen; apirilean, beharrezkoa izanez gero bere helburuen lortzeko, beharrezko balitz, zehaztutako egonkortze-tresna guztiak erabiltzeko prest zegoela berretsi zuen<sup>19</sup> eta, maiatzean, aktiboak (korporatiboak barne) erosteko ezarritako xedea gainditu zuen. Probabilitate handieneko agertokian, espero da neurri horiek lagungarri gertatuko direla, bai dolarraren aurrean euroaren kanbio-tasak baxu jarrai dezan –Erreserba Federalak AEBko diru-politika normalizatzeko abiarazitako prozesuari eutsiko dion itxaropenarekin batera–, bai eta euroguneko hazkunderaren eta inflazioaren inguruan arrisku-mailak behetik jarrai dezan ere. **Bi inpaktu nabarmen izango ditu horrek eskualdeko ekonomiaren gainean:** alde batetik, kredituak eskuragarriago izateak barne-eskaria sustatuko du, bai kontsumoaren esparruan eta bai inbertsioenean; eta, bestetik, euroa nahiko balio apaletan mantentzeak beste euskarri bat dakar esportazioei begira. Dena den, neurri berri horien eragina aurretik izandako malgutasun-garaietan behatutakoa baino txikiagoa izango da; izan ere eta, BBVA Research-en estimazioen arabera, neurri horiek 2015ean izan zuten eragin goren<sup>20</sup>.

18: Euskadiko ekonomian petrolioaren prezioak izandako eraginari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi *Zertan den Euskadi 2015* aldizkariko 2. errekoadroa, hemen: [https://www.bbva-research.com/wp-content/uploads/2015/03/Situacion\\_CyL\\_Mar15\\_vf.pdf](https://www.bbva-research.com/wp-content/uploads/2015/03/Situacion_CyL_Mar15_vf.pdf)

19: Xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi BBVAren EBZ-ren Behatokia. Hemen: <https://www.bbva-research.com/category/tematicas/bancos-centrales/>

20: Diru-politika ez-konbentzionalaren eraginei buruz gehiago jakiteko, ikusi *Situación España* aldizkariko (2H16) 3. errekoadroa, hemen: [https://www.bbva-research.com/?capitulo=r3-impacto-de-las-medidas-no-convencionales-de-politica-monetaria-en-la-economia-espanola&post\\_parent=125121](https://www.bbva-research.com/?capitulo=r3-impacto-de-las-medidas-no-convencionales-de-politica-monetaria-en-la-economia-espanola&post_parent=125121)

3.22 grafikoa

**Autonomia-erkidegoak: etxeetako garraio-gastuak eta petrolioaren jaitzierak BPGn duen eragina**

Iturria: BBVA Research

**Doikuntza fiskala sustatuko du susperraldiak 2016an**

**2016rako, susperraldiak berriro ere Euskadiren defizit publikoa murrizten laguntzea espero da.** Euskadiko Autonomia Erkidegoaren (EAE) diru-sarrerek eutsi egingo diote dinamismoari, Foru Aldundien ekarpenen bidez. Bestalde, interes-ordainketagatiko gastuaren atalean ez gainerako sail guztietan gastua handitzea aurreikusten du Eusko Jaurlaritzak. Transferentzia arruntetan aurreikusten den hazkundera nabarmentzen da, gizarte-politikak suspertzearen eta soldatapekoei ordainsaria handitzearen ondorioz (2012ari dagokion aparteko ordainsaria itzultzeagatik, soldata publikoak handitzeagatik eta langile gastuen doikuntza neurri batzuetan atzera egin delako). Orohar, **2016an Euskadik bere egonkortsun helburua berriro betetzeko arazorik ez izatea espero da** (BPGren -% 0,7).

**Hazi egingo da etxeetako eskari pribatua, baina motelago**

**Etxeetako kontsumo-perspektibak positiboak dira oraindik.** Enplegua sortzeak eta inflazio-presiorik ez izateak familiek eskuragarri den errenta erreala sustatuko dute datoen hiru hilekoetan. Kontsumo pribatua indartuko dute higiezinaren aberastasunean aurreikusten den hazkundera eta finantziario-baldintzak hobetzeak, historikoki baxuak diren interes-tasa ofizialak lagun. Dena den, hazkunde hori ez da izango aurreko hiru hilekoetan bezain indartsua. Aldiz, urtearen lehen erdiko burtsa kotizazioen erorikoak, murriztu egin dezake finantza-aberastasunak kontsumoaren hazkundera egindako ekarpena<sup>21</sup>.

**Hainbat faktore daude inbertsio pribatuak susperraldi apala izan dezan.** Lehenik eta behin, eskari nazionala eta ondasunen esportazioak handitzeak pizgarriak emango ditu produkzio ahalmena handitzeko. Bigarrenik, diru-politikaren joera hedakorrek ziurtatu egiten du finantzaketa-kostuei maila txikitzen eutsiko zaiela eta kreditu-eragiketa berriak ugalduko direla. Azkenik, petrolioaren prezio baxuak kostuetan aurrezkia eragingo du (garraioarekin lotutakoetan batik bat, baina baita euskal industrian giltzarri diren sektoreetan ere) eta, horrela, enpresen marjinak handitzeaz gain, baliabide gehigarriak inbertsioetara zuzendu ahal izango dira. Horrez gain, automobilgintza sektorean Euskadiko fabrika handiena denak 2016an produkzio-errekorra urratzea espero du, bere modelo berria lagun eta, gainera, Espainiako beste fabrika batzuetan iragarri inbertsioak onuragarri gerta litezke osagai hornitzaileentzat.

Higiezinaren sektorearen bilakaera Euskadin bertako ekonomiaren bilakaerak baldintzatuko du ia erabat, barne-eskariaren mendekotasunagatik. Enplegua handitzeak eta interes-tasa txikiko inguruneak sektorea lagunduko dute, baina Euskadin ez da espero atzerriko eskariaren edota beste autonomia-erkidego

21: BBVA Research-eko estimazioek adierazten dute hiru hilekoan finantza-aberastasun garbi erreala % 1 murrizteak kontsumo nazional pribatuaren ia % 0,1eko jaitziera metatua eragingo lukela hurrengo lau hiru hilekoetan.

batzuetan bizi direnen ekarpen handiegirik, Espainian eskariaren atal horiek joera ona izanagatik. Hortaz, ez da espero sektorea Euskadin Espainiakoa beste hazterik.


### Kanpo-sektorearen bilakaera, euskal industriarentzat giltzarri

**Espainiako barne-eskaria hobetzea, Europaren hazkunde ekonomikoa eta euroaren balio-galera mesedegarri gertatuko dira ondasunen esportazioen hazkunderako.** Are gehiago, 2016-2017 biurtekorako munduko ekonomian aurreikusitako hazkundeak, EDBn eskaria suspertzeak eta petrolioaren prezioa merkatu izanagatik garraio-kostuak jaisteak, Euskadiko ondasun eta zerbitzuen eskaria sendotzea ahalbidetzen dute. Hala ere, ondasunen esportazioetan halako atonia bat sumatu da Euskadin azken urteetan, hobetzeko joera sendorik ez baitu hartu, eta, horrek baldintzatuko ditu bai hazkunde aren maila eta bai industriaren susperraldia. Ekipo-ondasunen inportazioan berriki sumatu den hobekuntzak lagundu egingo dio inbertsioari, eta euskal esportatzaileen perspektiba onak direla adieraz lezake horrek. Dena den, nazioartean ziurgabetasuna areagotzeak gehiago eragin diezaioke ekipo-ondasunen eskariari.

### 37 mila lanpostu sortuko dira datorren biurtekoan


**Argitalpen honetan planteatutako agertokia bat dator eskualdean 2016 eta 2017an 37 mila lanpostu pasa sortzearekin.** Testuinguru horretan, hazkunde ekonomikoa izango litzateke segidako lau urtetan baina, hala eta guztiz ere, enplegu-maila 2008ko lehen hiruhilekoan baino 8,1 p.p. txikiagoa litzateke. Bestalde, langabezia-tasa orduko baino 4,2 puntu handiagoa litzateke eta 2017. urte amaieran % 9,6 ingurukoa litzateke (ikusi 3.24 grafikoa).

3.23 grafikoa  
**Autonomia-erkidegoen saldo ez-finantzarioa (eskualdeko BPGren %tan)**



Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta

3.24 grafikoa  
**Euskadi: langabezia-tasaren (p.p. 1H08tik) eta BAI landunen bilakaera (1H08=100)**



(p): aurreikuspena. Epe amaierako datuak.  
Iturria: BBVA Research, BAI n eta INEn oinarrituta

### Euskadi, hainbat erronka dituela

**Euskadin ekonomia nahiko erritmo onean eta batez besteko historikoaren gainetik hazten ari den arren, bere horretan jarraitzen dute zenbait kanpo- nahiz barne-arriskuk, eta zenbait areagotu ere egin dira.** Lehen horien artean, britainiar herritarre burutu erreferenduma nabarmendu da (Euskadiko esportazioen helmuga diren herrialdeen artean laugarrena), EBtik irtetea erabaki baitute. Erresuma Batuak eta EBk batasunetik irteteko baldintzak negoziatzeko bi urte badituzte ere, berehalako eragina izan du horrek liberaren kotizazioaren gainean eta, ziurgabetasun handiagoko ingurune bati lotuta eskaria ere murriz daitekeela kontuan hartuta, gerta daiteke britainiarrek euskal ondasun eta zerbitzu gutxiago



eskatzea. Hori guztia, aintzat hartu gabe kapital merkatuetako aldakortasunak munduko ekonomian eta, bereziki, Europakoan, nahiz ekipo-ondasunen eskarian izan ditzakeen eraginak.

**Espanian, ekonomia-politikaren etorkizunari buruzko ziurgabetasunak goiti jarraituko du, nahiz eta oraingoz kostuak mugatuak izan direla dirudien.** Espainiako Gobernuaren definizio faltaren aurrean ez da nabarmendu jardueraren gainbeherarik, baina horrek ez du esan nahi BPGn eraginik izaten ari ez denik. Zehazki, Espainiako ekonomiaren hazkunde-aurreikuspenak 8 hamarren handiagoak ziratekeen (2016ko eta 2017ko hazkunde metatuan), ekonomia-politikaren inguruan urtariletik apirilera sumatu ziurgabetasun handitzea eman ez balitz. Are gehiago, ez dugu bermerik eragin negatiboa handitzen jarraitzen ez dutela esateko<sup>22</sup>.

**Eskualdean, aurreikuspenen epe horretan, barne-ekonomiaren suspertze erritmoa handitzeko eskualdeak duen ahalmenak** zehaztuko du Espainiaren epe egun duen arrakala ixteko aukera. Gastuari eusteko eta zerga-finkatzera bideratu beharreko ahalegina, hasiera batean, txikiagoa izango da Euskadin Espainian baino. Aldiz, esportazioen dinamismoa ziurgabetasun-elementu bat da eskualdeko ekonomiarako. Alde batetik, esportazioen euskarri izan daitezke merkataritza-bazkide nagusien ekonomiaren susperraldia edota automobilgintzaren eta makina-erremintaren sektoreen perspektiba onak baina, bestetik, hazteko zailtasunak dituzte produktu-talde eta sektore esportatzaile batzuek; eta Euskadiko esportazioen dinamismoa mugatu du horrek. Bestalde, turismoaren aurrerabidea euskarri osagarri bat da, baina ez da beste eskualde batzuetan bezain garrantzitsua.

Epe luzeagoan, Espainia osoak **aurrez aurre dituen erronken antzekoak ditu Euskadik ere**, hala nola **prestakuntza eta talentuari eustea, edota enpresa esportatzaileen oinarria hedatu beharra, enpresen neurria handiagotzearen alde eginez.** Lehenengoari dagokionez, ikasten edo lanean ari ez eta azken lau astean prestakuntza-ikastarorik egin ez zuten gazteen (16-24 urte) ehunekoa % 9,3koa zen Euskadin 2007an (Espainiako batez bestekoa baino 3,9 p.p. txikiagoa). Krisialdian, ehuneko horrek % 15,4ra iritsiz goia jo zuen 2012an eta, orduetik, berriro murriztu egin da, 2015ean % 10,7an kokatuz (ikusi 3.25 grafikoa). Enplegu-politika aktiboak diseinatuz tasa hori murrizteko erakundeek erakusten duten ahalmena funtsezkoa da epe ertain eta luzera eskualdearen potentziala haz dadin; are gehiago autonomia-erkidego honetan, azken urteotako bilakaera demografikoa ikusita egiturazko erronka bati egin beharko baitio aurre. Are garrantzitsuagoa da hori, biztanleria-piramide zaharkituagoa duela eta 2009tik 2014ra migrazio-saldo negatiboa izan duela kontuan hartuta; Espainiako gainerako eskualdeekiko duen saldo positiboa txikiagoa da, atzerriarekiko duen saldo negatiboa baino.


**Bigarrenari dagokionez, Euskadiko ekonomiak joera handiagoa erakusten du batez beste Espainiak baino esportazioetarako (kanpora zuzendutako salmenten pisua BPGren herenaren ingurukoa izan zen 2015ean Euskadin, Espainian baino 12 p.p. handiagoa).** ICEXek emandako datuen arabera, eskualdeko bost enpresa esportatzaile handienek esportazioen % 25,5 metatu zuten 2015ean, Espainiako eskualde gehienetan baino proportzio txikiagoa. Izan ere, mila biztanleko enpresa esportatzaileen proportzio handiena Euskadik du Espainian, bai eta mikroenpresa kopururik txikiena ere (ikusi 3.26 grafikoa). Hala ere, datu horiek hobetu daitezke: enpresen neurria eta beronek eragin irabaziak handitzeko<sup>23</sup> lagungarri gerta daitezkeen politika guztiek joera esportatzailea sustatzen lagunduko dute eta, beraz, eskualdearen hazkunde-potentziala ere indartu egingo da.

22: Azterketa zehatzago bat ikusi nahi bada, ikusi *Situación España*, 2016ko bigarren hiruhilekoa, hemen: <https://www.bbva-research.com/public-compuesta/situacion-espana-segundo-trimestre-2016/>

23: Ikusi "Retos a Largo Plazo de la Economía Española: Dimensión Empresarial e Internacionalización", hemen: <https://www.bbva-research.com/publicaciones/retos-a-largo-plazo-de-la-economia-espanola-dimension-empresarial-e-internacionalizacion/>

3.25 grafikoa


**Ikasten eta lanean ari ez diren edo azken 4 astean prestakuntza-ikastarorik jaso ez duten gazteak (16-24 urte; kopuru osoarekiko %)**



Iturria: BBVA Research, BAIn eta INEn oinarrituta

3.26 grafikoa

**Mikroenpresak 2014ko enpresa guztiekiko, eta enpresa esportatzaileen kopurua mila biztanleko**



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Datozen urteetan barne-eskariak hazkundeari egingo dion ekarpena zikloaren fase hedakorrean ikusitakoa baino txikiagoa izango dela uste da. Beraz, etorkizunari begira, giltzarria da esportazio sektorea. Eta horregatik, funtsezkoak izango dira esportazio gaitasuna indartzeko, bai enpresen tamaina<sup>24</sup>, eta bai I+G ataleko inbertsioa, bietan baita zer hobetua; eta horren bidez, eskualdearen hazkunde-potentziala. I+G ataleko inbertsioan -BPGren ikuspegitik edo enpresa handi eta ertainen ikuspegitik-, Espainiako eskualderik onenetan kokatzen da Euskadi, nahiz eta 2014an BPGren % 2ra iritsi ez. Baina, hori horrela izan arren, ahalegin berezia egin behar du Europako eskualde aurreratuenen mailara iristeko. Adibidez, BPGren gaineko I+Gko inbertsioa ez da inoiz % 3ra iritsi Euskadin; aldiz, % 11,4koa da Valonian, edota % 6,0koa Stuttgarten.

**Bestalde, ezinbestekoa da laugarren industria-iraultza izena hartu duen prozesu hori lehenbailehen barneratzeko ahalegina egitea: industriaren eta zerbitzuen eraldaketa digitalaz ari gara.** Hori lortzeko, behar-beharrezkoa da informazioaren gizartearen hazkundera (ikusi 3.27 grafikoa) eta eskualdearen lehiakortasuna sustatzea (ikusi 3.28 grafikoa). Eskualdeak badu zer hobetua bi alderdion. horietan.


**Giza kapitalari dagokionez, funtsezkoa da hezkuntza-mailaren hobekuntza sustatzea, horixe baita enpresen eta gizartearen aktibo nagusia.** Argitalpen honen laugarren atalean, Euskadi denboraren ikuspegitik eta Espainiarekin alderatuta zer egoeratan dagoen aztertzen da eta, argi erakusten da, duela zenbait urte zeukan posizio onuragarria galtzen ari dela eskualdea. Egungo tokia hobetzeko, garrantzitsua da, besteak beste, eskola-uzteari aurre egitea, hezkuntza-maila ezberdinetan dagoen eskaintza eta eskariaren arteko oreka eza deusezte eta prestakuntza unibertsitate-ikasketetara bideratzen duen segmentazio gehiegizkoari aurre egitea, lanbide-ikasketa hobeak garatuz, lanpostu askotan gehiegizko kualifikazioa sortzen baita<sup>25</sup>.

24 Enpresa batek enpresa txikitik enpresa ertaina izatera pasatzeko behar duen hazkundera da esportaziorako joera sustatzeko elementurik garrantzitsuenak (ikusi Correa eta Doménech, 2012).

25: Informazio gehiago izateko, ikusi: "Hacia un mercado de trabajo más eficiente y equitativo", 2016ko maiatzeko BBVA Researchen behatokia, hemen: <https://www.bbva.com/publicaciones/espana-hacia-un-mercado-de-trabajo-mas-eficiente-y-equitativo/>

3.27 grafikoa


Informazioaren gizartearen indizea <sup>26</sup> Europan (%)



Iturria: BBVA Research, Eurostat-en (2016) eta INEn oinarrituta (2015)

3.28 grafikoa

Informazioaren gizartearen indizea eta eskualdeko lehiakortasuna Europan



Iturria: BBVA Research, Eurostat-en (2016), INEn (2015) eta Annoni eta Dijkstra-ren lanean (2013) oinarrituta

3.3.koadroa

BPGren hazkundea autonomia-erkidegoetan (%)

	2013	2014	2015	2016	2017
Andaluzia	-1,9	1,0	3,2	2,8	2,8
Aragoi	0,0	1,4	2,7	2,8	2,9
Asturias	-3,6	0,5	3,1	2,1	2,3
Balearrak	-1,6	1,2	3,2	3,2	3,3
Kanariak	-0,8	1,7	2,8	2,9	2,8
Kantabria	-3,7	1,0	2,6	2,4	2,4
Gaztela eta Leon	-2,6	1,0	2,9	2,4	2,4
Gaztela-Mantxa	-0,4	0,3	3,2	2,9	2,9
Katalunia	-1,4	1,6	3,3	2,9	2,7
Extremadura	-0,8	1,3	3,0	2,3	2,5
Galizia	-1,6	0,4	3,2	2,2	2,2
Madril	-1,9	1,6	3,4	2,9	3,0
Murtzia	-1,2	1,8	3,1	2,7	3,2
Nafarroa	-1,4	1,6	2,9	2,6	2,8
<b>Euskadi</b>	<b>-2,7</b>	<b>1,3</b>	<b>3,1</b>	<b>2,4</b>	<b>2,5</b>
Errioxa	-2,7	2,0	2,8	2,7	3,1
Valentzia	-1,3	1,9	3,6	2,8	2,7
<b>Espainia</b>	<b>-1,7</b>	<b>1,4</b>	<b>3,2</b>	<b>2,7</b>	<b>2,7</b>

Data: 2016ko maiatza  
Iturria: BBVA Research eta INE

26: Honako hauei dagozkien batez besteko ehunekoak zehazten ditu informazioaren gizartearen indizeak: banda zabalean sarbidea duten familiak, Interneten maiz nabigatzen duten pertsonak, eta botere publikoekin Internet bidez jarduten duten pertsonak.

## 1. errekoadroa. Euskadiko egoera ekonomikoaren azterketa, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren bidez. 2016ko bigarren hiruhilekoa

2016ko bigarren hiruhileko Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren emaitzek<sup>27</sup> ekonomia egonkortzen ari dela adierazten dute. **2016ko bigarren hiruhilekoaren amaiera aldera jasotako datuak, aurreko hiruhilekoari dagozkion datuen antzekoak dira.** Ildo horretatik, **inkestari erantzun dioten hamar lagunetatik zazpik jarduera ekonomikoa egonkorra izango dela aurreikusi dute.** Dena den, 2013ko ekainetik lehen aldiz, une horretako hiruhilekoari eta hurrengoari buruzko erantzunen saldo garbiak negatiboak dira, bi kasuetan eta, epe laburrari begira, itxaropenak okerrera egin duela berresten du horrek.

**Eragileen konfiantzan ikusi den gainbehera leun hori hurrengo hiruhilekoari begira islatzen da,** unekoari begira baino gehiago; eta britainiar erreferendumak eta Espainiak hauteskunde orokorrak errepikatzeak sortutako ziurgabetasun-egoeraren isla izan daiteke. Dena den, **2015eko bigarren hiruhilekotik aurrera okerrera egin dute muturreko erantzun garbiek<sup>28</sup>,** 1H15ean maximora iritsi ondoren (ikus E.1.1 grafikoa): inkesta erantzun dutenen artean, % 11k soilik espero dute beren inguruko jarduera bizkortzea uztaila eta iraila artean (aurreko hiruhilekoan baino 8 p.p. gutxiago); aldiz, % 21ek uste du behera egingo duela (1H16 aldiarekiko 4 p.p. gehiago).

**Sektoreen ikuspegitik, turismoarekin lotutakoak izan dira emaitzarik onenak (saldo garbi positiboaren % 50),** aurreko hiruhilekoarekiko 23 p.p. hobetu baitu bere saldo garbia. Antzeko hobekuntza izan du zerbitzuetako enpleguari buruzko ikuspegiak ere, nahiz eta saldo garbi txikiagoa duen (21 p.p.). Bestalde, esportazioek ere saldo garbi positiboari eutsi diote (% 9), lehen hiruhilekoan bezalatsu, baina hamarretik bederatzik aurreikusten dute egonkor jarraituko dutela.

Gainerakoan, barne-eskariaren inertzia nahiko garbi islatzen da **adierazle gehienetan nagusi den egonkortasunean,** batik bat industriarekin, inbertsioarekin, enpleguarekin edo salmentekin lotuta. Inkesta egin duten hamar lagunetatik zazpik gutxienez inbertsio edota enpleguarekin lotutako adierazle horiek egonkor jarraituko dutela aurreikusten dute (ikus E.1.1 koadroa). Dena den, hobekuntza txiki bat ere nabarmentzen da horietako batzuetan, erantzunen saldo garbi gutxitan bada ere, hala nola zerbitzuetako inbertsioen eta eraikuntza berrien atalean, edota industriako eta eraikuntzako enpleguaren atalean.

Enpleguari dagokionez, **zerbitzuetako enpleguari buruzko ikuspegiak hobera egin duela nabarmentzen da:** inkesta egin dutenen artean, % 4k soilik aurreikusten dituzte erorikoak eta erantzunen saldo garbia % 21 da. Gainerako sektoreetan egonkortasun-aurreikuspen hori handiagoa bada ere, eraikuntzako enpleguak eta industriakoak erantzunen saldo garbi negatiboekin jarraitzen dute. Turismoan ikusi den hobekuntza lotuta dago zerbitzuen sektoreko enpleguari buruzko iritzi hobearrekin, baina esportazioen ahulezia erlatiboak industriako enpleguaren ahulezian oinarritutako ikuspegia islatzen du (ikus E.1.2 grafikoa).


Laburbilduz, jarduera ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren emaitzek **argi erakusten dute 2015eko lehen hiruhilekoan goia jo ostean, euskal ekonomiari buruzko perspektibak indarra galtzen ari direla inkesta egin dutenen artean.** Okerrera egite hori pixkana gertatu da, eta aurtengo bigarren hiruhilekoan ere ez da gehiegi jaitsi, ziurgabetasun handiko testuingurua izan arren. Hortaz, barne-eskariaren bilakaeraren inertziak eta turismoaren hazkundeak euskal ekonomiarena egonkortzeko egoera egokia sor dezakete.

27: Laginaren luzerak (19 hiruhileko) ez du aukerarik ematen urtarokotasuna eta egutegi-eraginak zuzentzeko, eta, beraz, lortutako seinaleak urtarokotasun-osagaiaren bat ere izan dezake barnean.

28: Muturreko erantzunen saldo garbia lortzeko, jarduera ekonomikoak gorantz egin zuela uste duten erabiltzaileen erantzunen ehunekoari beherantz egin zuela uste dutenen ehunekoa kentzen zaio.

E.1.1 grafikoa


**BBVA Inkesta Euskadin: jarduera ekonomikoaren bilakaera eta espektatibak. Erantzunen saldo garbiak (%)**



Iturria: BBVA Research

E.1.2 grafikoa

**BBVA Inkesta Euskadin: aukeratutako aldagaiak. Erantzunen saldo garbiak (%)**



Iturria: BBVA Research

E.1.1 koadroa

**Euskadiko Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta. Emaiza orokorrak (%)**

	2016ko bigarren hiruhilekoa				2016ko lehen hiruhilekoa				2015eko bigarren hiruhilekoa			
	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa*	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa*	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa*
<b>Jarduera ekonomiko</b>	12	71	16	-4	15	70	15	-1	34	63	4	30
<b>Hurrengo hiruhilekorako aurreikuspena</b>	11	68	21	-10	19	64	17	2	48	51	1	47
Industria-ekoizpena	8	84	8	1	10	82	8	2	25	74	0	25
Eskari-zorroatik	9	80	11	-2	8	77	14	-6	29	70	1	28
Stock mailak	4	93	3	1	8	82	10	-2	15	84	1	14
Lehen sektoreko inbertsioa	4	90	7	-3	1	93	6	-4	3	94	3	0
Industriako inbertsioa	7	82	11	-4	8	86	7	1	19	81	0	18
Zerbitzuetako inbertsioa	19	70	10	9	16	68	16	0	33	64	2	31
Eraikuntza berriak	22	67	11	12	25	66	9	17	37	60	3	33
Industriako enplegua	5	80	15	-10	6	79	16	-10	20	75	4	16
Zerbitzuetako enplegua	25	71	4	21	17	68	15	2	41	54	6	35
Eraikuntzako enplegua	8	81	11	-4	7	82	12	-5	16	79	5	11
Prezioak	7	90	3	3	8	84	7	1	4	91	5	0
Salmentak	11	68	20	-9	12	72	16	-3	29	69	2	27
Turismoa	51	47	1	50	29	70	2	27	46	54	1	45
Esportazioak	12	84	3	9	11	83	6	5	31	69	0	31

(\*) Muturreko erantzunen saldoa.


Iturria: BBVA

## 2. errekoadroa. Eragiten al dio barne-eskariaren bilakaerak esportazioen hazkundeari?

Esportazioen hazkunda funtsezkoa izan daiteke hurrengo urteetan, susperraldiari eusteko eta munduarekiko gehiegizko zorpetzea tajuz zuzentzeko. Zehazki, **kanpoko salmenten garrantzia handitu egin da krisia lehertu eta barne-merkatuak hondoratu ondoren**. Adibidez, azkeneko atzeraldian, ekonomia espainiarrean kanpoko eskari garbiak hazkundeari egindako ekarpen positiborik ezean behatutakoa baino 9 puntu portzentual (p.p.) handiagoa zatekeen BPGren erorikoa. Testuinguru horretan, ondasunen esportazioek gero eta garrantzi handiagoa dute Espainiako ekonomian, BPG nominalaren % 23ra artekoa, hau da, 2009an zuten pisua baino 8 p.p. gehiago. **Euskadiri dagokionez, BPGren gaineko esportazioen ratioa % 33tik gorakoa da, azken bost urteetan 10 p.p. handitu ondoren** (ikusi E.2.1 grafikoa).

E.2.1 grafikoa

**AAEE: esportazioen pisua BPGren gainean (%)**



Iturria: BBVA

### Zerk azaltzen du ondasunen esportazioek azkeneko atzeraldian izandako bilakaera?

Azterlan ugariaren arabera<sup>29</sup>, ohikoan aztertzen diren faktore eragileen bilakaera, hala nola mundu-mailako eskaria edota kanbio-tasa erreal efektiboaren bilakaera, ez dira nahikoak EDBko ekonomietan esportazioek azken aldian izandako

29: ikusi, adibidez, BCE (2013), IMF (2013) edo BdE (2015).

hedapena azaltzeko, hazkunde globalaren moteltzea gertatu baita eta kanbio-tasa nominalak finkoak izan baitira merkatal-bazkide nagusien artean.

**Errekoadro honek Euskadiko esportazioek izan duten hazkunde handia azaltzea du xede, barne-eskariak jarduera esportatzailearen gain egindako presio eraginetik abiatuta.**

Hauxe adierazten dute **emaitzek**:

- **Ondasunen esportazioen ohiko faktore eragileek azken aldiko literaturarekin bat datozen elastikotasunak erakusten dituzte.** Epe luzera begira, munduko eskariaren hazkundeak unitatetik gertuko elastikotasuna ekarriko luke esportazioen hazkundera; bestalde, kanbio-tasa erreal efektiboaren % 1eko depreziazioak eskualdeko esportazioak 0,4 p.p. inguru bultzatu ditu.
- **Badirudi barne-kontsumo pribatuak jarduera esportatzailearengan ordezkatzeko efektuen bat eragiten duela.**
- **Barne-eskariaren bilakaerak esportazioen gain duen eragina asimetrikoa da, eta beraz handiagoa da (eta esanguratsuagoa, estatistikoki) barne-kontsumoak behera eragiten duenean.** Zehazki, barne-kontsumoaren uzkuertzeak Euskadiko ondasunen esportazioek 2010etik 2013ra izandako hazkundearen % 50 inguru azaldu zuen. Aitzitik, barne-eskariaren suspertzeak ez zuen eragin esanguratsu handirik izan esportazio-jardueran. Horren ondorioz, epe ertainean, ez da espero barne-eskariaren hazkundeak esportazioen gaineko beheranzko presiorik egitea.

Hurrengo ataletan, erabilitako metodologia garatu eta ondorio nagusiak jaso dira amaieran.

### Eredua, aldagaiak eta emaitzak

Eskualdeko esportazioen jokoera zer faktorek azaltzen duten jakiteko asmoz<sup>30</sup>, **panel-datuen eredu dinamiko bat estimatu da autonomia-erkidegoentzat, 1997tik 2015eko lehen hiruhilekora bitartekoa**<sup>31</sup>. Hautatutako espezifikazioan, epe luzera begira, esportazio ez-energetikoak nazioarteko eskariaren eta eskualdearen lehiakortasunaren eta prezioaren menpe daude. Aldagai horiek honela eraikitzen dira, hurrenez hurren: eskualde bakoitzeko merkataritza-bazkide nagusien BPG errearen batez besteko haztatua batetik, eta, bestetik, eskualdeetako Kontsumoko Prezioen Indizeetan (KPI) oinarritutako kanbio-tasa erreal efektiboa. Epe luzeko oreka-mailarekiko desbideratzeak eragiten dituzten faktoreak dira hiruhileko atzerriko eskariaren aldaketa eta prezio-lehiakortasunarena.

**Emaitzek adierazten dutenez, eskualdeko ondasunen esportazioek positiboki erantzuten diete merkataritza-bazkide nagusien eskari aldaketei eta, negatiboki, kanbio-tasa erreal efektiboaren balio-handitzei.** Zehazki, elastikotasunak bat datoz literatura berrienarekin (BdE (2012), BdE (2015)). Epe luzera begira, munduko eskariaren hazkundeak eskualdeko esportazioen hazkundeak unitatetik gertuko elastikotasuna izatea dakar; horrez gain, kanbio-tasa erreal efektiboaren % 1eko balio-handitzeak 0,4 p.p. inguru txikitzen ditu kanpoko salmentak (ikusi R.1.1. koadroko "Estimazio tradizionala" zutabea).

Koefiziente horiek 90eko hamarkadan lortutakoak baino txixixeagoak dira (ikusi Buisán eta Gordo (1994), Doménech eta Taguas (1996) edo García eta Gordo (1998). Hainbat faktore daude elastikotasunen murrizketa horren atzean. Lehenik, BCE (2014) eta Gopinath (2015) lanetan

azpimarratzen den moduan, Espainiak parte-hartzea handitu du balio-kate globaletan eta, beraz, hori izan liteke esportazioek eskari globalaren eta lehiakortasunaren aldagaiekiko duten sentiberatasuna aldatzeko arrazoia. Halaber, BdE (2015) lanean adierazitakoaren ildotik, lagina 90eko hamarkadako azken urteetan hasten denez, ez ditu jasotzen pezetak hamarkadaren lehen zatian izandako debaluazioak. Estimazioak hartzen duen aldian, kanbio-tasa nominala ez zen politika ekonomikorako tresna. Azkenik, Ortega *et ál.* (2007) lanean iradokitzen da, beharbada, esportazioek prezio erlatiboekiko duten sentiberatasuna murriztu egin dela, produktuen kalitatearekin eta bereizketarekin lotutako faktoreen ondorioz.

Epe laburrera begira, badirudi prezio-lehiakortasunak hiruhilekoz hiruhileko izan aldaketek ez dutela eragin esanguratsurik unean uneko jarduera esportatzailearen gain. Bestalde, ondasunen esportazioen elastikotasuna munduko eskariak izandako hiruhilekoko hazkundeekiko 2,2koa dela kalkulatu da. Azkenik, ikus liteke oreka-mailarekiko epe laburreko desbideratzeak % 40 inguru zuzentzen direla hiruhileko bakoitzean.

**Bigarren etapa batean, barne-kontsumoaren eta jarduera esportatzailearen arteko lotura aztertzen da,** faktore horrek esportazioek azkeneko atzeraldian izandako aparteko hazkundearen zati bat azaltzen ote duen egiaztatzeko. Horretarako, eskualdeko kontsumo pribatuaren adierazle sintetiko bat eratu da (ISCR-BBVA), gastuaren adierazle partzial nagusietan oinarrituta: ibilgailuen matrikulazioa, txikizkako salmentak, zerbitzu sektorearen jarduera-indizea, kontsumo-ondasunen inportazioak eta barne-kontsumo nazionala<sup>32</sup> (ikusi R.2.2 grafikoa). Adierazle hori eratzeko erabilitako metodologia osagai nagusien azterketan oinarritzen da<sup>33</sup>.

30: Aldakortasun handia duenez, ondasunen esportazioen osagai energetikoa ez da txertatu.


31: Erabilitako metodologiaren informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi eranskina.

32: Kontsumo-adierazleak hautatu dira soilik, barne- eskariaren inbertsioak esportazioen gain duen eraginak bi noranzko izan baititzake, horiek ekoizpen-ahalmena handitzen duten heinean.

33: Metodologia honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi Pearson, K. (1901). "On Lines and Planes of Closest Fit to Systems of Points in Space". *Philosophical Magazine* 2 (11): 559–572. Eta Stock, J. eta Watson, M. "Forecasting Using Principal Components From a Large Number of Predictors". *Journal of the American Statistical Association* Dec. 2002, 97. lib., 460. zk., Theory and Methods.

E.2.2 grafikoa

**Euskadi eta Espainia: eskualdeko kontsumoaren adierazle sintetikoa eta barne-kontsumo nazionala (h/h, %)**



Iturria: BBVA Research, Aduana, DGT eta INEren datuean oinarrituta

Bigarren erregresioaren emaitzek, kontsumoaren adierazle sintetikoa barneratuz, aurreko espezifikazioekin bat datozen elastikotasunak ematen dituzte ohiko esportazioen faktore eragileentzat (ikusi E.1.1. koadroko “Estimazio tradizionala + Kontsumoa” zutabea). Gainera, **erlazio negatiboa ikusten da eskualdeko barne-kontsumoaren<sup>34</sup> eta esportazioen hazkundearen artean**, koefiziente hori estatistikoki oso esanguratsua ez den arren. Ikuspuntu teorikotik, barne-eskariaren eta esportazioen arteko erlazioa ez da zuzena, ordezkatzeko efektuen presentziaz gain, osagarritasunaren aldeko argumentuak ere badaudelako. Hala ere, Melitz (2003) eta Vanooenberghe (2012) lanetan frogatzen dutenez, ekoizpen-ahalmenak mugak dituen kasuetan, *trade-off* delakoa gerta daiteke barne- eta kanpo-merkatuko salmenten artean, merkatu batean *shock* bat gertatzean, beste merkatuan dituzten salmentak doituz erantzuten baitute enpresek. Beraz, esportazioak barneko salmenten funtzio negatiboa izan daitezke, bereziki areagotzen baita hori erabilera-ahalmen txikiko egoeretan.

Are gehiago, **barne-eskariaren eta esportazioen arteko erlazioa asimetrikoa izan daiteke**. Belke *et al.* (2012) lanean iradokitzen denez, barne-merkatuetan estresa gertatzen den aldietan, barne-eskaria ekoizpen-ahalmena bestekoa ez bada, enpresek atzerriko salmenten bidez ordezkatu nahi izaten dituzte barneko salmenta txikiak eta handitu egiten da nazioartean hedatzeko kostuei aurre egitearen aldeko jarrera. Hala ere, behin internazionalizatorako kostu berreskurazinak bere gain hartu eta inbertsioa eta ekoizpena atzerriko kontsumitzailearen arabera egokitutakoan, zaila dirudi enpresek prozesu horretan atzera egitea eta, beraz, muga nazionalen barneko salmenten hazkundeak esportazioekiko eragin osagarria izan dezake. Modu horretan, esportazio kuotan gertatu irabaziek egiturazko izaera izan dezakete.

**Esportazioen elastikotasunaren eta barne-kontsumoaren arteko asimetria hori E.1.1. koadroko hirugarren espezifikazioan ikus daiteke** (ikusi “Estimazio tradizionala + Kontsumo asimetrikoa” zutabea). Koadro horretan, kontsumoari dagokion aldagaia beste bi aldagaitan zatituta dago. Lehenak, “Barne kontsumoa +” izenekoak, kontsumoaren aldaketa positiboak jasotzen ditu; bigarrenak, “Barne-kontsumoa -” izenekoak, kontsumoaren jaitsierak jasotzen ditu.

**Estimazio horren emaitzek adierazten dute barne-kontsumoaren jaitsierek soilik dutela eragin esanguratsua jarduera esportatzailean.** Zehazki, jarduera esportatzaileak unitatetik gertuko elastikotasuna du barne-kontsumoaren erorikoen aurrean. Hala bada, **Euskadiko barne-eskariaren uzkuak urtean 3,5 puntu portzentualetan bultzatuko zituen esportazioak (agregatu nazionalerako estimatutakoaren ildotik<sup>35</sup>) eta, horrek azalduko luke, 2010etik 2013ra bitartean eskualdeko ondasun-esportazioek izandako hazkundearen % 50 (% 40 Espainiaren kasuan).** Aitzitik, barne-kontsumoaren aldakuntza positiboekin lotutako

34: Estimazioak barne-kontsumoaren bilakaerari lotutako koefiziente negatiboa adierazten du, bi aldiko atzerapenarekin, BCE (2015) lanean adierazitakoaren ildotik; dBdE (2015) lanean hiru aldiko atzerapena jasotzen da, eta enpresek beren jarduera esportatzailea abiarazteko edo handitzeko zenbat denbora beharko luketen islatzen du horrek.

35: Véase Recuadro 1 Situación España 4T15 para un análisis detallado de los resultados para el conjunto de la economía española. Disponible en [https://www.bbva.com/wp-content/uploads/2015/11/Situacion\\_Espana\\_4T15\\_R1.pdf](https://www.bbva.com/wp-content/uploads/2015/11/Situacion_Espana_4T15_R1.pdf)




esangura estatistiko txikiak ez du argi adierazten ordezkatze efektua eragiten duenik kanpoko salmentetan edo, aitzitik, modu osagarrian jokatzeko ote duten. Alde horretatik, **ez da espero barne-eskariak uneotan izandako susperraldiak beheranzko presioa eragiterik esportazio-jardueran** (ikusi E.2.3 grafikoa).

Azkenik, azpimarratu behar da kontsumo-aldagaiak txertatzeak ez dituela aldagai tradizionalen esanguratasuna eta koefizienteak aldatzen.

E.2.3 grafikoa

**Euskadi:** barne-kontsumoak ondasunen esportazioen hazkundeari egindako ekarpenak (urteko batez bestekoa eta konfiantza-tartea, %)



Iturria: BBVA

E.2.1 koadroa

**AAEE: ondasun-esportazioen hazkundearen faktore erabakigarrien estimazioak (1H1997-1H2015)**

	Estimazio tradizionala		Estimazio tradizionala + Kontsumoa		Estimazio tradizionala + Kons. asimetrikoa	
	Koef.	P-balioa	Koef.	P-balioa	Koef.	P-balioa
<b>Epe luzeko erlazioa</b>						
Atzerriko eskaria	0,954	0,000	0,972	0,000	0,976	0,000
Lehiakortasuna	-0,351	0,003	-0,408	0,000	-0,463	0,000
<b>Epe laburreko erlazioa</b>						
Konbergentzia-koefizientea orek.	-0,368	0,000	-0,403	0,000	-0,390	0,000
Δ Atzerriko eskaria	2,234	0,000	2,577	0,000	2,70	0,000
Δ Lehiakortasuna	-0,005	0,180	-0,006	0,148	-0,005	0,194
Δ Barne-kontsumoa			-0,579	0,082		
Δ Barne-kontsumoa +					-0,133	0,826
Δ Barne-kontsumoa -					1,076	0,021
Log Likelihood	1195,3		1209,3		1222,8	
Ikuskatzeen # (NxT)					1241	

(\*) Ikurra aldatu da: "Barne-kontsumoa -", errazago interpretatzeko.  
Iturria: BBVA Research eta INE

## Ondorioak

Azterlan honetan, ondasunen esportazioen faktore erabakigarrien azterketa egin da eta panel-datuen eredu dinamikoa bat erabili da Espainiako autonomia-erkidegoetarako. Emaitzek adierazten dute **esportazioek positiboki erantzuten dietela merkatal-bazkide nagusien eskari aldaketei eta, negatiboki, kanbio-tasa erreale efektiboaren balio-handitzei.**

Halaber, badirudi **barne-kontsumoak ordezkatzeko-efektua sortzen duela kanpoko salmentengan** eta, horrek, barneko nahiz atzerriko merkatuen arteko balibideak berriro esleitzea sustatzen du.

Azkenik, argi geratu da **barne-eskariaren hazkundearen eta kanpoko salmenten hazkundearen arteko erlazioa asimetrikoa dela. Barneko merkatuaren jaitsierek soilik izan dute eragin esanguratsua jarduera esportatzailean**, salmenten berrorientatzea sustatu eta enpresek nazioartekotze kostuak errazago onartu dituztelako.

Hala, merkatal-bazkide nagusien egoera ahula eta kanbio-tasa nominalaren egoera zurruna den uneotan, **2010. urtetik 2013. urtera bitartean, barne-eskariaren uzkuak Euskadiko jarduera esportatzailea urteko 3,5 p.p. bultzatu duela esan daiteke eta horrek azalduko luke, hain zuzen ere, aldi horretan esportazioek izandako hazkundearen % 50.** Aitzitik, badirudi barne-eskariaren aldakuntza positiboaren eragina eta aldakuntza horrek esportazioengan izan zezakeen ondorioa —ordezkapena edo osagarritasuna— ez dela esanguratsua. Alde horretatik, behin nazioartekotzeko kostu berreskurazkinak eta sor daitezkeen eskala-ekonomiak onartuta, zaila da Euskadiko enpresek jarduera esportatzailearen hedapen-prozesu horretan atzera egitea, une honetan barne-merkatua suspertzen ari den arren.

## Erreferentziak

BBVA Research, *Situación España Cuarto Trimestre 2013*. "Hechos estilizados del ciclo económico español"

Belke, A., A. Oeking and R. Setzer (2014). "Exports and capacity constraints — a smooth transition regression model for six euro area countries", ECB Working Paper no. 1740, European Central Bank.

Bobeica, E., Esteves, P. S., A. Rúa eta Staher, K. (2014). Exports and domestic demand pressure: a dynamic panel data model for the euro area countries, Working Papers 2014, 15, Banco de Portugal.

Esteves, P. S. and Rua, A. (2013). "Is there a role for domestic demand pressure on export performance?", ECB Working Paper no 1594, European Central Bank.

García, C., Gordo, Martínez-Martín eta Tello (2009). "Una actualización de las funciones de exportación e importación de la economía española", Documentos Ocasionales, 0905. zk., Banco de España.

García, C. eta Prades, E. (2015). "Una actualización de las funciones de exportación e importación de la economía española", Boletín Económico, 2015eko apirila, Banco de España.

Gopinath, G. 2015. "The International Price System." NBER Reporter.

Hall, P. A. (2012). "The economics and politics of the euro crisis", German Politics, 21(4), 355-371.

International Monetary Fund (2013). "External rebalancing in the euro area", IMF World Economic Outlook, October, 45-48.

Melitz, M. (2003). "The Impact of Trade on Intra-Industry Reallocations and Aggregate Industry Productivity", *Econometrica*, 71(6), 1695-1725.

Ortega, Burriel, Fernández, Ferraz eta Hurtado (2007). Actualización del Modelo Trimestral del Banco de España, Documentos de Trabajo, 0717. zk., Banco de España.

Pedroni, P. (1999). Critical Values for Cointegration Tests in Heterogeneous Panels with Multiple Regressors. *Oxford Bulletin of Economics and Statistics* 61, 653–670.

Pedroni, P. (2004). Panel Cointegration. Asymptotic and Finite Sample Properties of Pooled

Pesaran, M. H., eta R. P. Smith. 1995. Estimating long-run relationships from dynamic heterogeneous panels. *Journal of Econometrics* 68: 79–113.

Pesaran, M. H., Y. Shin, eta R. P. Smith. 1997. Estimating long-run relationships in dynamic heterogeneous panels. *DAE Working Papers Amalgamated Series* 9721.

1999. Pooled mean group estimation of dynamic heterogeneous panels. *Journal of the American Statistical Association* 94: 621–634.

Time Series Tests with an Application to the PPP Hypothesis. *Econometric Theory* 20, 597–625.

Understanding global trade elasticities: what has changed? *ECB Monthly Bulletin* July 2014,

Vannoorenberghe, G. (2012). "Firm-level volatility and exports", *Journal of International Economics*, 86, 57-67.

Westerlund, J. (2005). New Simple Tests for Panel Cointegration. *Econometric Reviews* 24, 297–316.

## Eranskina

Errekoadro honek ondasunen esportazioen hazkundearen faktore erabakigarriak ikertzen ditu, eta erroreak zuzentzeko eredu bat erabiltzen du horretarako, eskualdeko panel-datuekin. Pesaran eta Smith (1995) eta Pesaran, Shin eta Smith

(1997, 1999) lanetan oinarrituta, eskualdeko ondasun-esportazioek atzerapen banatuen prozesu autorregresibo bati jarraitzen diotela onartzen da (ADRL)  $(1, q_1, \dots, q_{1k})$ :

$$X_{it} = \lambda X_{it-1} + \sum_{j=0}^q \delta'_{ij} Z_{i,t-j} + \mu_i + \varepsilon_{it}$$

$(t = 1997q_1, \dots, 2015q_1)$  [1]

Non  $Z_{i,t-j}$  azalpen-aldagaien  $k \times 1$  bektore bat den (kasu honetan, merkataritza-bazkide nagusien BPG erreala, atzerriko eskariaren *proxy* gisa; kanbio-tasa erreal efektiboa (REER), lehiakortasunaren eta prezioaren *proxy* gisa; eta eskualdeko barne-kontsumoaren adierazle sintetikoa (ICI)).  $\mu_i$  eskualde bakoitzeko efektu finkoa da, eta  $\varepsilon_{it}$ , errore-terminoa,  $i$  eta  $t$  aldagaietan modu independentean banatutakoa.

Aldagaiak kointegratuak baldin badaude<sup>36</sup> eta erregresoreak zorrozki exogenoak baldin badira<sup>37</sup>, errorea zuzentzeko mekanismo baten moduan adieraz daiteke [1]:

$$\Delta X_{it} = \phi_i (X_{it-1} - \theta'_i Z_{it}) + \lambda^* X_{it-1} + \sum_{j=0}^{q-1} \delta'^*_i \Delta Z_{i,t-j} + \varepsilon_{it}$$
 [2]

non  $\phi_i = (\lambda_i - 1) < 0$  epe luzeko orekaren hazkunde-tasarekiko konbergentzia-abiadura den;  $\theta_i = \sum_{j=0}^q \delta_{ij} / (1 - \sum_k \lambda_{ik})$  aldagaien arteko oreka-erlazioa den; eta  $\delta^*_i = -\sum_{m=j-1}^q \delta_{im}$   $j = 1, 2, \dots, q - 1$  epe motzeko desoreka den.

Aztertzen ari garen kasuan, hauxe da egiazko egoeratik hurbilen dagoen ekuazioa<sup>38</sup>:

$$\Delta X_{it} = \phi_i (X_{it-1} - \theta_{0i} - \theta_{1i} \ln PIB_{it} - \theta_{2i} \ln REER_{it}) + \delta_{3i} \Delta PIB_{it} + \delta_{4i} \Delta REER_{it} + \delta_{5i} \Delta ICI_{it} + \varepsilon_{it}$$
 [2]<sup>39</sup>

36: Erro unitarioko testak egin dira indibidualki nahiz panel-datuaren esparruan, Pedroni (1999 eta 2004) eta Westerlund, J. (2005). Testek iradokitzen dutenez, aldagai errealak  $I(1)$  dira. Erro unitarioen eta paneleko kointegratioko kontrasteen emaitzak nahi duenaren eskura daude.

37: Testak egin dira, aldagaiak izan dezaketen endogenotasuna egiaztatzeko. Emaitzen arabera, lotura endogeno garaikidea egon daiteke esportazioen eta barne-kontsumoaren artean; hala ere, erlazio hori desagertu egiten da bi hiru hileko atzeratutako ICI aldagaiarekin.

38: Hausman-en testak baztertu egiten du desberdintasun sistematikoak daudenik mean-group (MG) estimazioaren eta pooled mean-group (PMG) estimazioaren artean. PMG estimatzailea eraginkorra da, eta horregatik hautatu da. PMG estimazioak epe luzeko erlazioa mugatzen du, eskualdeen artean berdina izan dadin, eta, epe laburrean, koefiziente desberdinak onartzen ditu autonomia erkidegoetan.

39: Lehenago adierazi denez,  $\Delta ICI$  aldagaia ez da txertatu lehenengo estimazio "tradizionalean", eta bitan zatitu da, elastikotasunak "Estimazio tradizionala + Kontsumo asimetrikoa" atalean izan ditzakeen asimetriak egiaztatzeko.

## 4 Espainiako eta espainiar eskualdeetako biztanleen hezkuntza-maila: 1960-2011. Euskadiren kasua

Ángel de la Fuente<sup>40</sup> - FEDEA eta Análisi Ekonomikorako Institutua (CSIC.) 2016ko apirila

### 1. Sarrera

Duela gutxi egindako bi lanetan, de la Fuentek eta Doménech-ek (D&D, 2014 eta 2015) biztanle helduen hezkuntza-mailari buruzko serieak eraiki dituzte, OCDEko 21 herrialderen multzorako eta Espainiaren eta espainiar eskualdeen kasurako, oinarritzat 1960-2011 denboraldia hartuta. Xede horretarako, biztanle-erroldek eta beste iturri batzuek eskaintzen duten informazioa erabili dute. Lanean,  $n$  mailako ikasketak dituzten 25 urteko edo hortik gorako biztanleen (25+ biztanleak hemendik aurrera)  $L_n$  frakzioa kalkulatu dute egileek. Hauek dira kontuan hartu diren hezkuntza-mailak: eskolagabeak ( $L_0$ ), lehen hezkuntza ( $L_1$ ), bigarren hezkuntzako bi zikloak ( $L_{2.1}$  eta  $L_{2.2}$ ), eta goi-prestakuntzako lehen bi zikloak ( $L_{3.1}$  eta  $L_{3.2}$ ). Oro har, hauxe da  $L_n$ :  $n$  hezkuntza-maila osatu duten biztanleen frakzioa, baina horren goitik hurrena duen maila osatu ez duena.  $L_1$  da salbuespena, irakurtzen eta idazten dakiten baina bigarren hezkuntzako lehen zikloa osatu ez duten guztiak sartzen baitira maila horretan. Talde horretako gehienek lehen hezkuntzako ikasketak dituzte soilik baina, ziurrenik, erabat osatu gabe; dena den, horietako batzuek irakurtzen eta idazteko ikasi dute, baina eskolatze formalik izan gabe, eta beste batzuk bigarren hezkuntzako lehen zikloa hasitakoak izango dira, baina berau osatu gabe.

Biztanleak hezkuntza-mailaren eta ikasketa horien iraupen teorikoaren arabera sailkatuz, biztanle helduen batez besteko eskolatze-urteen serieak ere atera dira. Aldagai interesgarriok Espainia osorako eta OCDEko beste herrialdeetarako atera dira lehenengo eta, ondoren, espainiar eskualdeetakoak atera dira, hamazazpi autonomia-erkidegoei Ceuta eta Melilla erantsitako eskualde gehigarritzat hartuta.


Honako ohar honetan, aipatutako lan horren emaitza nagusien laburpena egin dugu, eta xehetasun handixeagoz aztertu da Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua. Eztabaida Espainiak OCDEko herrialdeen lagin baten barruan izan duen bilakaera erlatiboaren inguruan oinarritu da, eta Euskal Autonomia Erkidegoak espainiar eskualdeen artean izandakoaren inguruan, bai eta eskualdeen artean hezkuntzan dauden aldeak eta hezkuntzaren, produktibitatearen eta okupazioaren arteko korrelazio estuaren inguruan ere.

### 2. Estatuko hezkuntza-mailaren bilakaera

Aintzat hartu ditugun hezkuntza-mailetara iritsi diren espainiar biztanleen bilakaera erakusten du 1. grafikoak, lau kategorian:  $L_0$ ,  $L_1$ ,  $L_2 = L_{2.1} + L_{2.2}$  eta  $L_3 = L_{3.1} + L_{3.2}$ . Izugarritzko aldaketak izan dira aztergai hartutako mende erdian, biztanleriaren hezkuntza-egituran. 1960an, Espainiako biztanle helduen % 15ek ez zekien ez irakurtzen eta ez idazten; % 94 ez zen iritsi lehen mailako eskolatik harantzago eta, goi-mailako prestakuntzaren bat zutenak, % 3 baino gutxiago ziren. Mendi erdia pasatu eta gero esan daiteke desagertua dela analfabetismoa, % 70ek baino gehiagok baduela bigarren hezkuntza-motaren bat eta % 20 inguruk goi-mailako hezkuntzara jo ahal izan duela. Batez beste prestakuntza-mailan ikusi den hobekuntza nabarmen horrek ekarri du ondoriorik: biztanle helduen batez besteko eskolatze-urteen zenbatekoa % 110 hazi da ia, eta 4,70etik 9,79ra igaro da aztergai dugun garai horretan.


40: Eskerrak eman nahi dizkiot Pep Ruizi, egindako iruzkin eta iradokizunengatik.

4.1 grafikoa  
Espainiako 25+ biztanleen frakzioa, hezkuntza-maila bakoitzean



Iturria: BBVA Research

4.2 grafikoa  
Espainia OCDE21en, bigarren mailako nolabaiteko hezkuntza bai, baina unibertsitatekoa ez duten (L2.1+L2.2) 25+ biztanleriaren ehunekoa




Iturria: BBVA Research

Espainiako hezkuntza-mailaren hobekuntza ez da horren deigarria gure inguruko batez bestekoari begira jartzen bagara, prestakuntza-mailan oso azkar egin baita hobera OCDEko herrialde guztietan. Argi ikusten da hori 2. grafikotik 4.era bitartekoetan: Espainiaren posizioa de la Fuente eta Doménechek (2014)<sup>41</sup> aztertutako OCDEko 21 herrialdeen multzoko batez bestekoarekin alderatzen da grafiko horietan, eta maximoa eta minimoa ere ageri dira, aztergai hartutako aldiak bakoitzean.

Bigarren mailako ikasketak dituzten ikasleen kasuan, 1980. urtetik aurrera batez bestekora hurbiltzen dela ikusiko dugu (ikus 4.2 grafikoa); hezkuntzaren derrigortasuna 16 urte arte luzatzearekin lotuta dago hori, neurri handi batean eta, bereziki, maila horretako lehen zikloan kontzentratzen da. Aurrerapena oso esanguratsua da goi-mailako ikasketetan ere (4.3. grafikoa), nahiz eta motelagoa den. Batez besteko eskolatzeko-urteei dagokienez hezkuntza-zikloetan sarrera duten ikasleen tasetan aldakuntzek duten eragin garbia erakusten du 4. grafikoa: lagineko batez bestekoarekiko posizioari dagokionez 20 puntu aurretik badago ere (1960an, 58ko indizea zuen, eta 2010ean, berriz, 82koa, OCDE21 multzorako 100 hartuta batez besteko ez haztatutzat), azken aurreko posizioan kokatzen da aldi horretan guztian, Portugal soilik hartzen baitio aurrea. Hortaz, aintzat hartzekoa da hobekuntza erlatiborako tartea.


41: Hauek dira erreferentziatzko laginean aintzat hartutako herrialdeak: Australia, Austria, Belgika, Kanada, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Alemania (Federala 1990era arte, eta herrialde bateratua hortik aurrera), Grezia, Irlanda, Italia, Japonia, Herbehereak, Zeelanda Berria, Norvegia, Espainia, Suedia, Suitza, Erresuma Batua eta Estatu Batuak. Kanpoan utzi da Mexiko, garapen-fase oso desberdina duen herrialdea delako, egileek herrialde horri buruzko zenbait datu ere eman arren.

4.3 grafikoa  
Espainia OCDE21en, unibertsitate-hezkuntza apur bat baduen 25+ biztanleriaren ehunekoa (L3.1+)



Iturria: BBVA Research

4.4 grafikoa  
Espainia OCDE21en, prestakuntza-urteak batez beste



Iturria: BBVA Research

### 3. Emaitzak, eskualdez eskualde

4.1 koadroan, errolda-urteetan Espainiako eskualdeetan batez beste biztanleek egindako prestakuntza-urteak erakusten dira, aldagai bereko batez besteko nazionalaren arabera normalizatuta; 100en parekotzat jo da aldi bakoitzean batez besteko hori, eta koadroaren azken lerroan dator berori, urtetan adierazita.

4.1 koadroa  
Batez besteko eskolatzeko-urte normalizatuak (Espainia = 100)

	1960	1970	1981	1991	2001	2011
Andaluzia	83,6	88,6	89,0	91,9	93,2	93,4
Aragoi	103,7	103,7	100,4	100,7	102,0	99,9
Asturias	112,6	108,2	103,5	102,0	101,2	99,6
Balearrak	<b>97,6</b>	<b>99,7</b>	<b>98,1</b>	<b>100,5</b>	<b>100,0</b>	<b>99,8</b>
Kanariak	88,5	96,2	96,7	99,7	97,7	97,8
Kantabria	115,8	110,8	105,3	103,9	104,0	101,1
Gaz. eta Leon	108,7	106,1	101,4	99,6	99,3	96,6
Gaz.-Mantxa	84,6	87,0	85,1	86,8	87,9	90,3
Katalunia	107,7	104,3	104,3	102,7	101,6	101,7
Valentziako Er.	99,0	97,6	96,1	97,0	97,3	97,9
Extremadura	82,9	87,6	85,1	86,9	87,4	87,8
Galizia	98,4	96,6	93,9	92,7	93,7	93,9
Madril	122,6	119,1	119,3	115,5	113,5	111,2
Murtzia	91,1	91,1	89,9	94,9	95,6	93,1
Nafarroa	110,7	110,6	108,3	106,6	107,9	104,0
<b>Euskadi</b>	<b>115,5</b>	<b>111,8</b>	<b>109,9</b>	<b>108,9</b>	<b>109,5</b>	<b>105,2</b>
Errioxa	108,9	106,6	101,9	100,2	103,2	97,8
Ceuta eta Mel.	110,1	98,1	97,3	99,3	95,1	90,6
<b>Espainia</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>Espainia, urteak</b>	<b>4,70</b>	<b>4,95</b>	<b>5,73</b>	<b>6,84</b>	<b>8,27</b>	<b>9,79</b>


Fuente: BBVA Research

### Eskualdeen arteko aldeak

Koadroan ikus daitekeenez, garrantzitsuak dira eskualdeen artean hezkuntzan dauden aldeak, eta iraunkorrak baina, aldi berean, badirudi alde horiek murrizteko joera ere hartu dela. 4.5 grafikoak 1960ko eta 2011ko egoerak islatzen ditu, autonomia-erkidego bakoitzaren batez besteko prestakuntza-urte normalizatuen ikuspegitik (Ceuta eta Melilla kanpoan utzita). Iparraldeko autonomia-erkidegoak, Madril barne, batez bestekoaren gainetik edo inguruan kokatzen dira lagin-tarte honen hasieran nahiz bukaeran; aldiz, hegoaldea eta ekialdea estatuko batez bestekoaren azpitik kokatzen dira. Dena den, modu esanguratsuan murriztu dira hezkuntza-maila handieneko eskualdeen eta hezkuntza-maila txikieneko arteko aldeak. Batez besteko prestakuntza-urte normalizatuen aldakuntza-koefizientearen ikuspegitik, hezkuntza-desoreka horiek % 52 murriztu dira 1960tik 2011ra.


1960tik 2011ra bitarteko hezkuntza-urte normalizatuen eta aldagai horren beraren barnean eskualde bakoitzak hasieran zuen posizioaren arteko erlazioa erakusten du 4.6 grafikoak. Aurreko grafikoak oinarri hartuta pentsatzekoa denez, erregresio-zuzenak malda negatiboa du eta, horrek adierazten du, hasiera batean okerren kokatuta zeuden eskualdeek aurrera egin dutela eta, aldiz, hasieran aurreratuen zebiltzanek alderantzizkoa egin dutela. Erregresioaren maldaren koefizienteak (- 0,60) adierazten digu aztergai hartutako mende erdian, estatuko batez bestekoarekiko hezkuntza-arraila % 60 inguru murriztu dela eskualde tipikoan. Zenbait eskualdek, hala nola Madrilek, Nafarroak, Kanariak eta Balearrek, hasierako egoera ikusita espero zitekeena baino hobeto jokatu dute eta, aldiz, beste batzuek, hala nola Gaztela eta Leonek, Asturiasek eta Galiziak, okerrago.

4.5 grafikoak  
Batez besteko prestakuntza-urte normalizatuak, 1960an eta 2011n, Espainia = 100



Iturria: BBVA Research

4.6 grafikoak  
Beta konbergentzia batez besteko prestakuntza-urteetan




Iturria: BBVA Research

### Errenta eta enpleguarekiko korrelazioa

Espainiako autonomia-erkidegoen hezkuntza-mailek korrelazio estua erakusten dute beren errenta-mailekin eta langabezia-tasekin. 4.7 eta 4.8 grafikoetan, 2011. urtean batez besteko eskolatzeko-urteetan eta lan egiteko adinean dagoen pertsona bakoitzaren errentarako erabakigarriak diren bi faktoreen arteko erlazioa erakusten da. Langabezia-tasaz eta produktibitateaz ari gara, lan egindako ordu bakoitzeko BPGren


arabera.<sup>42</sup> Bi kasuetan, altua da korrelazioa, eta horrek –eta ikerketa literaturan jasotako lan ugari<sup>43</sup>– adierazten du hezkuntza-maila produktibitatearen eta enplegua izateko aukerarentzat erabakigarria dela.

4.7 grafikoa  
Eskolatzte-urteak eta lan egindako ordu bakoitzeko BPG, 2011



Iturria: BBVA Research

4.8 grafikoa  
Eskolatzte-urteak eta langabezia-tasa, 2011



Iturria: BBVA Research

Espainiako autonomia-erkidegoen artean hezkuntzaren arloan sumatu diren aldeak oso adierazgarriak dira, bai ikuspegi ekonomikotik eta bai ikuspegi sozialetik. Giza kapital maila txikieneko eskualdeen ezaugarrietako bat produktibitate-maila txikiagoa izatea da, giza kapital handiagoa duten eskualdeetako baino 30 puntu inguru beherago kokatzen baita maila hori; eta, horrez gain, langabezia-tasak bikoiztu egiten dira horietan. Alde nabarmenak ekarri ditu horrek lan egiteko adinean dagoen pertsona bakoitzeko BPGn, eta korrelazio estua (0,89) du, gainera, eskolatzte-urteekin. Horixe adierazten du 4.9 grafikoa.

**Aurrera begira**

2011ko erroldak adin-multzoen arabera bereizita ematen du informazioa, autonomia-erkidegoetako biztanleen hezkuntza-mailari buruz. Oso erabilgarri gerta dakizkiguke datu horiek, eskualde bakoitzeko batez besteko prestakuntza-mailaren etorkizuneko ibilbidea proiektatzeko, bai eta, aldagai berean, eskualdeen artean sumatzen diren aldeen bilakaera zehazteko ere. Irakasbide aparta eskaintzen du, zehazki, biztanle helduen multzoaren hezkuntza-mailan eskualdeetan agertzen den aniztasuna gazte taldearen kasuan aldagai horretan ikusten denarekin alderatzeak; izan ere, azken aldagai hori etorkizunean izango diren hezkuntza-desoreken estimazio modura interpreta daiteke, betiere gaur egungo eskolatzte-ereduei eusten bazaie eta ez bada migrazio-fluxu esanguratsurik gertatzen.<sup>44</sup>


42: Honela deskonposa daiteke lan egiteko adinean dagoen pertsona bakoitzeko BPG hori: lan egindako ordu bakoitzeko produktibitatearen, enplegatu bakoitzaren ordu kopuruaren, enplegu-tasaren (edo unitatea ken langabezia-tasa, horren baliokidea baita) eta lan-merkatuko parte-hartze tasaren arteko biderkadura.

43: Funtsezko ebidentziaren ikuspegi bat nahi izatera, ikusi, adibidez, de la Fuente y Ciccone (2003).

44 Azken garaioan espainiar biztanleek eskualdeen artean izan duten mugikortasuna txikia izan bada ere, badira oraindik biztanle-fluxu esanguratsuak ere, hezkuntza-mailarekin lotura estua dutenak. Horren adibide garrantzitsu bat zera da: Madrilek unibertsitateko prestakuntza duten pertsonen kopuru handi samarra erakartzen du beste autonomia-erkidegoetatik. Hori kontuan hartuta, 4.10 grafikoa laburtutako egoera gehiago interpretatu behar da zurren gutxienekoan agertoki gisa (eskualdeen arteko desoreken mailari dagokionez) iragarpen gisa baino.




4.9 grafikoa  
Eskolatzte-urteak eta BPG, lan egiteko adinean dagoen pertsona bakoitzeko, 2011



Iturria: BBVA Research

4.10 grafikoa  
Eskolatzte-mailetan eskualdeen artean espero den konbergentzia, hezkuntza mailako talde-datuetatik abiatuta



Oharra: eskualdeen arteko dispersioaren adierazlearen murrizketa, ehunekotan, biztanleria helduaren multzotik (25+) gazteenen multzora iragatean (25-29). Balio negatiboak adierazten du ez dagoela konbergentziarik, dibergentzia nagusitzen dela.  
Iturria: BBVA Research


4.10 grafikoa kalkulu horren emaitza laburtzen du (hau da, eskualdeen artean espero zitekeen murrizketa); lagin osorako nahiz Madril kanpoan utzita osatutako azpilaginerako egin dira kalkuluak.<sup>45</sup> Eskualdeen artean azken hamarkadetan hezkuntzaren esparruan sumatu den konbergentzia-prozesuak etorkizunean jarraitu egingo duela iradokitzen du grafikoak, baina bigarren hezkuntzaren kasuan zentratzen bagara baino ez; eta, bereziki, bigarren hezkuntzako lehen zikloan. Hala ere, oso desberdinak dira gauzak nahitaezkoak ez diren hezkuntza-zikloetarako. Madril laginetik kanpo uzten badugu, multzokako datuek erakusten dute epe ertainera ez dela espero lurraldeen arteko desorekak modu esanguratsuan murrizterik, gutxienez bigarren hezkuntzako bigarren zikloa amaitu duten biztanleen zatiari dagokionez bederen. Unibertsitate-mailan, are okerragoa da egoera, eskualdeen arteko aldeak handitu egin baitaitezke etorkizunean, % 20tik % 40ra handitu ere.

#### 4. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua

4.11. grafikotik 4.14ra bitartekoek biztanleriaren hezkuntza-mailak azken mende erdian izandako bilakaera laburbiltzen dute, erreferentziatzat Espainiako batez bestekoa eta autonomia-erkidegoetako adierazle bakoitzeko balio minimoak eta maximoak hartuta.


45: Kanpoan utzi da eskualde hori, jokabide atipikoa erakusten duelako, eta eskualdeen artean espero zen konbergentziaren adierazlearen eragin nabarmena duelako. Zehazki, unibertsitateko prestakuntza-maila altuak erakusten ditu Madril gainerako eskualdeekin alderatuta aztergai hartutako garaiaren hasieran, eta abantaila erlatibo hori galdu egiten du neurri batean gero. Konbergentzia sendoa erakusten duen eredu hori ez da beste eskualdeetan gertatzen, eta, beraz, laginetik Madril ateratzean, adierazlearen balioa oso modu esanguratsuan aldatzen da.

4.11 grafikoa  
**Hezkuntza-maila bakoitzera iritsi den EAEko 25+ biztanleriaren zatia**



Iturria: BBVA Research


4.12 grafikoa  
**Euskal Autonomia Erkidegoa Espainian Bigarren hezkuntzako prestakuntza apur bat (L2.1+L2.2) baino unibertsitateko prestakuntzarik ez duen 25+ biztanleriaren ehunekoa**



Iturria: BBVA Research


4.11 eta 4.1 grafikoa konparatzen baditugu, ikusiko dugu EAEko biztanleek hezkuntzan izan duten bilakaera Espainiakoaren antzekoa dela, nahiz eta aldekoagoa duen hasierako posizio batetik abiatu: analfabetismo-maila nahiko baxuak ditu, eta bigarren mailako edo goi-mailako ikasketak dituzten biztanleen multzo handi samarra. 4.12 grafikotik 4.14ra bitartekoek erakusten dute, gainerakoekin alderatuta, Euskal Autonomia Erkidegoak erakusten duen egoera hobeari eutsi egiten zaiola aztergai hartutako garai guztian zehar, nahiz eta beheranzko joera apal bat ere nabari den. Batez besteko eskolatzte-urteei dagokienez, 10 puntu galdu zituen EAEk 1950etik 2011ra, eta estatuko batez bestekoan (100) 115eko indizea izatetik 105era iragan zen garai horren amaieran.

4.13 grafikoa  
**Euskal Autonomia Erkidegoa Espainian Unibertsitate-hezkuntza apur bat (L3.1+) duen 25+ biztanleriaren ehunekoa**



Iturria: BBVA Research

4.14 grafikoa  
**Euskal Autonomia Erkidegoa Espainian, batez besteko prestakuntza-urteak**



Iturria: BBVA Research

## Erreferentziak

de la Fuente, A. eta A. Ciccone (2003). *Human capital in a global and knowledge-based economy*. Europako Batzordea, DG for Employment and Social Affairs. Office for official publications of the European Communities, Luxembourg.

de la Fuente, A. eta R. Doménech (2014). "Educational attainment in the OECD, 1960-2010, version 3.1." FEDEA, laneko dokumentua 2014-14.

<https://ideas.repec.org/p/fda/fdaddt/2014-14.html>

de la Fuente, A. eta R. Doménech (2015). "El nivel educativo de la población en España y sus regiones: 1960-2011. (RegDatEdu\_v40\_1960\_2011)." FEDEA, Estudios sobre Economía Española 2015-05 zk.

<https://ideas.repec.org/p/fda/fdaeee/eee2015-05.html>

## 5 Taulak

5.1 koadroa

**Euskadiko ekonomiaren koiuntura adierazle nagusiak**

	2015		Batazbesteko hazkundea urte haseratik (u/u)		Azken datua (h/h, ueez)		Azken hilabetea
	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia	
<b>Txikizkako salmentak</b>	1,3	3,6	3,6	4,4	1,0	0,3	mai-16
<b>Matrikulazioak</b>	21,8	22,9	3,9	15,0	-1,7	0,0	mai-16
<b>ZSJI (IASS)</b>	4,3	4,8	4,8	4,2	-0,4	-0,2	api-16
<b>Bidaieri egoiliarrek (1)</b>	7,4	6,2	9,7	5,5	1,8	1,4	mai-16
<b>Egoiliarren ostatu-gauak (1)</b>	9,6	5,3	8,4	5,5	2,6	3,9	mai-16
<b>IPI</b>	3,8	3,3	6,6	3,4	-0,1	0,5	mai-16
<b>Etxebizitza bisatuak</b>	45,5	42,8	42,6	40,5	-30,5	-12,5	api-16
<b>Etxebizitza salerosketak</b>	17,7	10,9	20,3	33,0	-1,5	-0,5	api-16
<b>Esportazio Errealak (2)</b>	-1,4	3,4	8,0	3,8	0,5	0,4	api-16
<b>Inportazioak</b>	2,8	5,6	3,7	4,3	0,2	0,3	api-16
<b>Bidaieri Atzerritarrek (3)</b>	9,2	5,9	11,8	10,8	3,3	-0,5	mai-16
<b>Atzerritarren Ostatu-gauak (3)</b>	10,3	3,9	13,4	12,0	1,1	-0,2	mai-16
<b>Afiliazioa SSn</b>	1,9	3,2	2,1	2,9	0,1	0,4	eka-16
<b>Langabezia Erregistratua</b>	-6,7	-7,5	-9,2	-8,0	-0,2	-1,3	eka-16

(1) Espainiako Egoiliarrek (2) Ondasun esportazioak (3) Espainiako egoiliarrek ez direnak  
Iturria: BBVA Research eta Espainiako ministeritzetan (SOIM, EOM eta ITMM) oinarrituta

5.2 koadroa

**EDB: aurreikuspen makroekonomikoak (u/u) (Urte arteko bariazio-tasak %-tan, kontrakorik adierazi ezean)**

	2013	2014	2015	2016	2017
<b>BPG prezio konstanteetan</b>	<b>-0,2</b>	<b>0,9</b>	<b>1,5</b>	<b>1,6</b>	<b>1,9</b>
Kontsumo pribatua	-0,6	0,8	1,7	1,7	1,8
Kontsumo publikoa	0,2	0,8	1,3	1,5	1,1
Kapital Finkoaren Eraketa Gordina	-2,5	1,4	2,6	3,1	3,8
Izakinak (*)	0,1	0,0	-0,1	0,0	0,0
<b>Barne eskaria (*)</b>	<b>-0,6</b>	<b>0,9</b>	<b>1,6</b>	<b>1,9</b>	<b>2,0</b>
Esportazioak (ondasun eta zerbitzuak)	2,2	4,1	4,9	2,7	3,6
Inportazioak (ondasun eta zerbitzuak)	1,4	4,5	5,6	3,9	4,0
<b>Kanpo eskaria (*)</b>	<b>0,4</b>	<b>0,0</b>	<b>-0,1</b>	<b>-0,4</b>	<b>-0,1</b>
<b>Prezioak</b>					
KPI	1,4	0,4	0,0	0,2	1,3
Azpiko KPI	1,3	0,9	0,8	1,0	1,5
<b>Lan Merkatua</b>					
Enplegua	-0,7	0,6	1,0	1,1	0,9
Langabezia tasa (bizt.akt. %)	12,0	11,6	10,9	10,1	9,6
<b>Sektore publikoa</b>					
Defizita (BPGren %)	-3,0	-2,6	-2,1	-1,9	-1,6
Zorra (BPGren %)	91,1	92,0	90,7	90,4	88,8
<b>Kanpo sektorea</b>					
Kontu korrante saldoa (BPGren %)	2,1	2,5	3,2	3,2	3,0

Aurreikuspenak dira atzea zuria ez dutenak. (\*) hazkundeari egindako ekarpena  
Aurreikuspenen itxiera-data: 2016ko maiatzak 6.  
Iturria: erakunde ofizialak eta BBVA Research

5.3 koadroa

**Aurreikuspen makroekonomikoak: Barne Produktu Gordina**

Urteko batez bestekoa, %	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<b>Estatu Batuak</b>	2,2	1,5	2,4	2,4	2,5	2,4
<b>EDB</b>	-0,8	-0,2	0,9	1,5	1,6	1,9
Alemania	0,6	0,4	1,6	1,4	1,7	1,8
Frantzia	0,2	0,7	0,2	1,2	1,3	1,6
Italia	-2,8	-1,8	-0,3	0,6	1,0	1,4
Espainia	-2,6	-1,7	1,4	3,2	2,7	2,7
<b>Erresuma Batua</b>	1,2	2,2	2,9	2,3	1,8	1,9
<b>Latinoamerika *</b>	2,9	2,6	0,7	-0,5	-1,0	1,7
Mexiko	4,0	1,4	2,1	2,4	2,2	2,6
Brasil	1,9	3,0	0,1	-3,9	-3,0	0,9
<b>EAGLES **</b>	5,8	5,5	5,2	4,6	4,7	4,9
Turkia	2,1	4,2	3,0	4,0	3,9	3,9
<b>Asia-Ozeano Barea</b>	5,8	5,8	5,6	5,5	5,3	5,1
Japonia	1,7	1,5	0,0	0,5	0,8	0,8
Txina	7,7	7,7	7,3	6,9	6,4	5,8
Asia (Txina gabe)	4,3	4,3	4,2	4,3	4,4	4,5
<b>Mundua</b>	3,4	3,3	3,4	3,1	3,2	3,4

(a): aurreikuspena

\* Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Mexico, Peru eta Venezuela.

\*\* Saudi Arabia, Bangladesh, Brasil, Txina, Filipinak, India, Indonesia, Irak, Mexiko, Nigeria, Pakistan, Errusia, Tailandia eta Turkia.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2016ko maiatzak 6.

Iturria: BBVA Research eta NDF

5.4 koadroa

**Zor publikoaren 10 urterako interes tasa**

(%, urteko batez bestekoa)	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<b>Estatu Batuak</b>	1,79	2,34	2,53	2,13	2,02	2,49
<b>Alemania</b>	1,57	1,63	1,25	0,54	0,47	0,75

Aurreikuspenen itxiera-data: 2016eko maiatzak 6.

Iturria: BBVA Research eta NDF

5.5 koadroa

**Aurreikuspen makroekonomikoak: kanbio tasak**

(Urteko batez bestekoa)	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<b>USD-EUR</b>	0,78	0,75	0,75	0,90	0,91	0,89
<b>EUR-USD</b>	1,29	1,33	1,33	1,11	1,10	1,12
<b>EUR-USD</b>	1,59	1,56	1,65	1,53	1,49	1,66
<b>GBP-USD</b>	79,77	97,45	105,82	121,07	118,44	128,50
<b>USD-JPY</b>	6,31	6,20	6,14	6,23	6,63	6,99
<b>USD-CNY</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>	<b>2017</b>
<b>USD-EUR</b>	0,78	0,75	0,75	0,90	0,91	0,89
<b>EUR-USD</b>	1,29	1,33	1,33	1,11	1,10	1,12

Aurreikuspenen itxiera-data: 2016eko maiatzak 6.

Iturria: BBVA Research eta NDF

5.6 koadroa

**Spainia: aurreikuspen makroekonomikoak (Urte arteko bariazio-tasak %-tan, kontraktorik adierazi ezean)**

	2013	2014	2015	2016 (a)	2017 (a)
<b>Jarduera</b>					
BPG erreala	-1,7	1,4	3,2	2,7	2,7
Kontsumo pribatua	-3,1	1,2	3,1	2,6	2,4
Kontsumo publikoa	-2,8	0,0	2,7	1,6	1,8
Kapital eraketa gordina	-3,6	4,8	7,0	3,6	4,5
Ekipoak eta makineria	4,0	10,6	10,2	5,5	4,7
Eraikuntza	-7,1	-0,2	5,3	3,1	4,1
Etxebizitza	-7,2	-1,4	2,4	2,8	4,4
Barne-eskaria (hazkudeari egin ekarpena)	-3,1	1,6	3,7	2,6	2,6
Esportazioak	4,3	5,1	5,4	4,4	5,6
Inportazioak	-0,3	6,4	7,5	4,4	6,0
Kanpo-eskaria (hazkudeari egin ekarpena)	1,4	-0,2	-0,5	0,1	0,0
BPG nominala	-1,1	1,0	3,8	3,6	4,9
(Mila milioi euro)	1031,3	1041,2	1081,2	1120,3	1175,5
BPG, etxebizitza arloko inbertsiorik gabe	-1,4	1,5	3,2	2,7	2,6
BPG, eraikuntza gabe	-1,0	1,5	3,0	2,7	2,5
<b>Lan merkatua</b>					
Enplegua, BAI (EPA)	-2,8	1,2	3,0	2,8	2,5
Langabezia tasa (biztanleria aktiboaren %)	26,1	24,4	22,1	19,8	18,5
CNTR enplegua (lanaldi osoaren baliokidea)	-3,3	1,1	3,0	2,4	2,2
Lan-faktorearen ageriko produktibitatea	1,6	0,3	0,2	0,3	0,4
<b>Prezio eta kostuak</b>					
KPI (urteko batez bestekoa)	1,4	-0,2	-0,5	-0,3	1,7
KPI (aldi bakoitzaren amaieran)	0,3	-1,0	0,0	0,6	1,3
BPGren deflatoarea	0,6	-0,4	0,6	0,9	2,2
Soldatapekoen ordainsaria	1,7	-0,6	0,5	1,8	1,1
Unitateko lan-kostua	0,2	-0,8	0,3	1,5	0,7
<b>Kanpo-sektorea</b>					
Kontu korrante balantza (BPGren %)	1,5	1,0	1,4	2,1	2,5
<b>Sektore publikoa</b>					
Zorra (BPGren %)	93,7	99,3	99,2	99,6	98,4
Herri Administrazioen saldoa (BPGren saldoa) (*)	-6,6	-5,8	-5,0	-3,9	-2,9
<b>Etxeak</b>					
Errenta nominal eskuragarria	-0,8	0,9	2,3	3,6	3,3
Aurrezki tasa (errenta nominalaren %)	10,2	9,8	9,6	10,6	9,8

Urte arteko bariazio-tasak %-tan, kontraktorik adierazi ezean.

(a): aurreikuspena

Aurreikuspenen itxiera data: 2016eko maiatzak 6..

(\*): Espainiako finantza erakundeei emaniko laguntzak kenduta.

Iturria: BBVA Research

**LEGE-OHARRA**

BBVA Research-eko sailak egindako dokumentu honek dibulgazio-izaera du, eta egindako datari dagozkion datuak, iritziak eta estimazioak ditu, bertan landutakoak edo fidagarri irizten diegun iturrietatik datozenak edota berorietan oinarrituta egin direnak; hala ere, BBVAk ez ditu bere kabuz egiaztatu beroriek. Hortaz, berorien zehaztasunari, osotasunari edo zuzentasunari buruzko bermerik ez du ematen BBVAk, ez berariaz eta ez modu inplizituan.

Dokumentu honetan izan daitezkeen estimazioak oro har onartuta dauden metodologiak erabiliz landu dira, eta halakotzat hartu behar dira, hau da, aurreikuspen edo proiektiotzat. Aldagai ekonomikoaren bilakaera historikoak (positiboa edo negatiboa) ez du bermatzen etorkizunean bilakaera baliokidea izango dutenik.

Dokumentu honen edukiak aldaketak izan ditzake, aurretiazko abisurik gabe, adibidez, testuinguru ekonomikoaren arabera edota merkatuaren gorabeheren arabera. BBVAk ez du inolako konpromisorik hartzen ez dokumentua eguneratzeko eta ez aldaketa horien berri emateko ere.

BBVAk ez du beregain inolako erantzukizunik dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzearen ondorioz zuzenean edo zeharka gerta daitezkeen inolako galeraren aurrean.

Ez dokumentu hau eta ez jasotzen duen edukia ere ez dira inolaz ere eskaintza, gomendio edo erosketa-eskaera, aktibo edo tresna finantzarioak erosteko, inbertsioak desegiteko edo interesak lortzeko, eta ezin dute izan inolako kontratu, konpromiso edo erabakiren oinarri.

Dokumentu honek gara ditzakeen aldagai ekonomikoekin lotuta egon daitezkeen aktibo finantzarioetan egin daitezkeen inbertsioei dagokienez, irakurleek argi eta garbi izan behar dute ezin dutela dokumentu hau beren inbertsioei buruzko erabakiak hartzeko oinarritzat hartu, eta inbertsio-produktuen eskaintzak egin diezazkieketen pertsonak edo erakundeak legez behartuta daude horrelako erabaki bat hartzeko beharrezkoa duten informazio guztia ematera.

Honako dokumentu honen edukia jabetza intelektualari buruzko legediak babesten du. Berariaz debekatuta dago berau erreproduzitzea, aldatzea, banatzea, publikoki zabaltzea, eskuragarri jartzea, zatiak ateratzea, berriro erabiltzea edo bidaltzea edo beste edozein helburutarako erabiltzea, edozein bitarteko edo prozedura medio, legez baimendutako kasuetan salbu eta BBVAk berariaz emandako baimena dutenean salbu.

## Txosten hau Espainia eta Europako Unitateak prestatu du:

**Ekonomia Garatueterako ekonomialari burua**

Rafael Doménech  
r.domenech@bbva.com  
+34 91 537 36 72

*Spainia*

Miguel Cardoso  
miguel.cardoso@bbva.com  
+34 91 374 39 61  
Ignacio Archondo  
ignacio.archondo@bbva.com  
+34 91 757 52 78  
Joseba Barandiaran  
joseba.barandiaran@bbva.com  
+34 94 487 67 39  
Ignacio Belenguer  
ignacio.belenguer@bbva.com  
+34 91 757 52 78

Juan Ramón García  
juanramon.gi@bbva.com  
+34 91 374 33 39  
Félix Lores  
felix.lores@bbva.com  
+34 91 374 01 82  
Antonio Marín  
antonio.marin.campos@bbva.com  
+34 648 600 596  
Myriam Montañez  
Miriam.montanez@bbva.com  
+34 638 80 85 04

Matías José Pacce  
matias.pacce@bbva.com  
+34 647 392 673  
Virginia Pou  
virginia.pou@bbva.com  
+34 91 537 77 23  
Juan Ruiz  
juan.ruiz2@bbva.com  
+34 646 825 405

Pep Ruiz  
ruiz.aguirre@bbva.com  
+34 91 537 55 67  
Camilo Andrés Ulloa  
camiloandres.ulloa@bbva.com  
+34 91 537 84 73

**BBVA Research****Taldeko Ekonomialari Burua**

Jorge Sicilia Serrano

**Garatutako Ekonomiak**

Rafael Doménech  
r.domenech@bbva.com

*Spainia*

Miguel Cardoso  
miguel.cardoso@bbva.com

*Europa*

Miguel Jiménez  
mjimenezg@bbva.com

*Estatu Batuak*

Nathaniel Karp  
Nathaniel.Karp@bbva.com

**Garatze bidean diren Ekonomiak***Garatze bidean diren Ekonomien*

*Zeharkako Análisis*  
Álvaro Ortiz  
alvaro.ortiz@bbva.com

*Asia*

Le Xia  
le.xia@bbva.com

*Mexiko*

Carlos Serrano  
carlos.serranoh@bbva.com

*Turkia*

Álvaro Ortiz  
alvaro.ortiz@bbva.com

*Latam koordinazioa*

Juan Manuel Ruiz  
juan.ruiz@bbva.com

*Argentina*

Gloria Sorensen  
gsorensen@bbva.com

*Txile*

Jorge Selaive  
jselaive@bbva.com

*Kolonbia*

Juana Téllez  
juana.tellez@bbva.com

*Peru*

Hugo Perea  
hperea@bbva.com

*Venezuela*

Julio Pineda  
juliocesar.pineda@bbva.com

**Finantza Sistemak eta Araudia**

Santiago Fernández de Lis  
sfernandezdelis@bbva.com

*Finantza Sistemak*

Ana Rubio  
arubiog@bbva.com

*Finantza Barneraketa*

David Tuesta  
david.tuesta@bbva.com

*Araudia eta Politika Publikoak*

María Abascal  
maria.abascal@bbva.com

*Araudia digital*

Álvaro Martín  
alvaro.martin@bbva.com

**Arlu Globalak***Inguru Ekonomikoak*

Julián Cubero  
juan.cubero@bbva.com

*Finantza Inguruak*

Sonsoles Castillo  
s.castillo@bbva.com

*Berrikuntza eta Prozesuak*

Oscar de las Peñas  
oscar.delaspenas@bbva.com

## Interesdunak, helbide honetara zuzendu:

**BBVA Research**

Calle Azul, 4  
Edificio de la Vela - 4ª y 5ª plantas  
28050 Madrid (España)  
Tel.: +34 91 374 60 00 y +34 91 537 70 00  
Fax: +34 91 374 30 25  
bbvaresearch@bbva.com  
[www.bbvaresearch.com](http://www.bbvaresearch.com)